

MEMORIA



2

0

1

4



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa

Agencia Vasca de
Protección de Datos



Agencia Vasca de Protección de Datos – Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3. solairua

01008 VITORIA-GASTEIZ

avpd@avpd.eus

www.avpd.eus

MEMORIA

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urterokoa

LG: VI 312-2006

Lan hau Creative Commons-da



Aitortu (by)

Aske zara:

- Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- Lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- **Aitortu** - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesaren duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.eu>



AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA	5
2.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	8
3.	AHOLKULARITZA EGINKIZUNA.....	10
4.	KONTROL EGINKIZUNA.....	26
5.	EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA	34
6.	DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOAK.....	40
7.	PRIBATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA	44
8.	EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA	53
9.	BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA	60
10.	BARNE KUDEAKETA.....	62
	CIFRAS DEL REGISTRO DE PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES.....	71
	AHOLKULARITZA ETA IKUSKARITZA UNITATEARI BURUZKO ZIFRAK	88
	AURREKONTU EXEKUZIOARI BURUZKO DATUAK.....	90





1. AURKEZPENA

2014a urte berezia izan da. Urte osoa atzera begira eman dugu, azken hamar urteetan, hau da, 2003ko otsailaren 25ean Eusko Legebiltzarrak Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea onartu eta Agentzia sortu zenez geroztik egindako bideari so. Baina, atzera begiratu badugu, aurrera jotzeko izan da, eta erronka berriak begiesteko.

Hamar urteotan egindakoa aztertu dugu. Konturatu gara administrazio publikoetan urtez urte joan dela handitzen datu babesaren inguruko ezagutza, eta laguntzaile sare zabal bat ere eratu dugu administrazio horiekin, elkar lanerako gune sendoa sortuz erakunde horietan datu babesari buruzko ezagutza sustatzeko.

Gure beste frontea ere ez dugu baztertu: herritarrak. Eta, hain zuzen ere, une honetan heldutasun handia erakusten dute datu pertsonalak babestearen arloan; izan ere, gero eta hobeto baitakite zein eskubide dituzten, eta garbi ikusten baitute datuon merkataritza erabilera eta administrazio publikoek egiten duten erabilera. Eta zenbat eta gehiago jakin, orduan eta kontsulta gehiago egiten dituzte eta salatu ere bai; eta horren ondorioa da adibidez 2014an zortziehun kontsulta baino gehiago jaso dituela Agentziak, eta, gehiago ala gutxiago, denak izan zirela datuak babesteko pertsonen eskubideak jasandako kalteren bati buruzkoak.

Horrez gain, ahalegin handia egin dugu gure lana eta datu pertsonalak babesteko eskubidea kanpoan erakusten. Oso ondo dakigu ikastetxeen, unibertsitateen, enpresen eta administrazioen berri, maiz joaten garelako bertara eskubidea azaltzera eta zabaltzera. Eta ikasleen, gurasoen, eta irakasleen aurrean ematen ditugu argibideak, bai eta enpresa eta administrazioetako langile edo zuzendari eta arduradunei ere. Horrez gain, profesionalen prestakuntzan ere zer esan handia izan dugu, ikustea besterik ez dago Euskal Autonomia Erkidegoan dauden pribatutasunari buruzko elkarteen prestakuntza ekintza ia guztietan egon garela.

Saiatzen gara fronte guztietan egoten, eta bertoko langileei prestakuntza etengabea eskaintzen. Horregatik, 2013an jada barruko prestakuntza prozesu bat hasi genuen, bertoko langileek elkarri azaltzeko segurtasunari buruzko gaiak, datu babesari buruzkoak edo kanpoko erasoei nola aurre egin eta norberaren burua babesten erakusteko, oraintsu ere egin dugun moduan. Pentsatzen dut langileen prestakuntzak zer ikusi zuzena duela langileen asebetetzearekin, eta niretzat garrantzi handiko kontua da.

Alde horretatik, 2014ko oroipen atseginak ditugu, eta erakunde honetan dabilzan eta ibili diren enplegatu eta arduradun guztiekin partekatu nahi izan ditugu. Zorte handia izan dugu erakundeko langileak profesional bikainak izan direlako; izan ere, hala izan behar baita erakunde batek lortu nahi badu, egun Datuak Babesteko Euskal Bulegoak lortu duena bezalako ospea kanpoan, ez bakarrik esparru autonomikoan edo Estatuan, bai eta nazioartean ere. Horren erakusgarri da iaz Datuak Babesteko Iberoamerikako Sarean hartu genuela parte eta eskubide osoko kideak garela. Hori dela eta, Agentziako zuzendaria naizen aldetik, Sarearen XII. Bileran egoteko aukera izan nuen



Mexikon bertan; eta bi mahai-ingurutan oso modu aktiboan parte hartzeaz gain, Mexikoko estatuetak datuak babesteko eta gardentasuneko agintaritzen ordezkarien prestakuntzan ere hartu nuen parte.

Iberoamerikako esparrua garrantzitsua dela uste dut, hain zuzen ere, herrialde horietan datu babesari buruzko zenbait arau ari direlako garatzen, eta ezarri ere egin behar direlako; eta han hamar urteko esperientzia duen gure erakundearen lana aintzatetsi egiten dutelako.

Bestalde, 2014. urtea Agentziaren sarien lehenengo urtea izan da. Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Kontseilu Aholku-emailearekin bat etorrira, iritzi genion erakunde edo pertsona batzuk saritu behar genituela, datu babesaren jarduera arloa zabaltzeko asmoarekin garatu dituzten proiektuak eta jarduerak burutzeagatik. Antonio TRONCOSO jaunak, Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko zuzendari ohiak jaso zuen sari bat, besteak beste, bere ibilbide profesional sendo eta sendetsiagatik. EITB Taldearen jarduerak ere sari bat jaso zuen, datu babesaren gaineko ezagutzaren zabalkundean eta datu babesaren nahiz Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gaineko berriak zorrotz tratatzeagatik. Eta, azkenik, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearen lana ere saritu zen, datuak babesteko eskuliburua egin zuelako, eta erreferentziazko lana izan delako urteetan udal esparruan. Eta ezin da ahaztu Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren lehenengo zuzendaria izan zen Iñaki VICUÑA DE NICOLÁS jaunari egindako aintzatespena, hark ere lan bikaina burutu zuelako.

Sariok bidean aurrera egin dute 2015ean, eta egun sendotuta daudela esan daiteke.

Agentziaren hamargarren urteurrenaren ospakizuna 2015aren hasieran bukatu da; eta, beraz, ez dagokio Memoria honi hori azaltzea. Datuak Babesteko Agintaritzen Jardunaldiak eman zion amaiera ospakizunari Bilbon, eta Datua Babesteko Espainiako Agentziak eta Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzak hartu zuten parte jardunaldian.

Aurten lana gogor egin dugu eta ekoizpena ere handia izan da. Gai konplexuak izan ditugu esku artean, eta horrek lan espezializatua eskatzen du eta azterketa zorrotza. Jadanik gainditu dugu oinarritzko galderen aroa, eta egun hausnarketa sakona eskatzen duten gaiak dira nagusi.

Urte berezia izan da, Estatuko gardentasunari buruzko legea indarrean sartu zelako abenduan, eta, hain zuen ere, gardentasunak ukitutako pertsonen datu pertsonalen babesa delako legearen ezarpen-mugetako bat. Horrek esan nahi du etorkizunean, hau da, lege hori edo gardentasunari buruzko balizko lege autonomiko bat ezarri beharra edukiz gero, zenbait ponderazio-irizpide ezarri beharko ditugula, jakin ahal izateko noiz erakutsi behar dugun dena delako informazioa eta noiz ez. Datozen urteetako eztabaida izango da hori. Eta zeregin horretarako funtsezkoa izango da oso ondo jakitea zein diren jokoan dauden interesak eta ezarri behar diren printzipioak. Ez dugu ahaztu behar Datuak Babesteko Euskal Bulegoak 90 irizpen baino gehiago argitaratu dituela bere web orrian, zer ikusia dutenak partikularrek, kolektiboek edo administrazioek hirugarrenen esku dagoen informazioa atzitzeko eskubidearekin; eta, horrez gain, gaiari buruzko doktrina zabala ere garatu du, kontuan hartu beharrekoa etorkizunean.



Bestalde, azken urteotako ildoari jarraiki, 2014an Informazio eta Komunikazio Teknologiak izugarri garatu dira, teknologiak azkar doaz aurrera, eta, horrek zalantza handiak sortzen ditu. Esate baterako, gauzen Internet bezalako gaiek erronka handiak ekarriko dizkigute, edo gure herrietan sentsoreak jartzea edo erabili ohi ditugun tresnak bihurtzea hirugarrenei ematen diegun informazioaren detektagailu, edo pertsonen arteko eta pertsonen eta administrazioen arteko komunikazio modu berriak sortzea bezalako kontuek. Eta informazio hori guztia baten baten esku dagoenean, nola tratatu behar den eta zertarako. Horixe gertatzen da Big Data delakoarekin: sekulako informazio piloa maneiatzea eta era askotako erabilera eman ahal izatea informazioari.

2014ko joko-eremua halakoxea izan da, baina ez ditugu baztertu kalteren bat jasan duten pertsonen egunez eguneko arazoak, maiz kalteak oso larriak izan direlako, dela pertsona horien datuak behar bezala ez tratatzeagatik, dela beraiei buruzko informazioa agertu delako Interneten inguruan, halako gertaerek ekartzen dituzten ondorioak ikusita. Era berean, 2014an jaso dugu maiatzaren 13ko epaia, bilatzaile handiengana jotzeko eta bilaketa emaitzak ezabatzeko eskatzeko eskubideari buruzkoa, arazo horiek zati batean leunduz.

Gure nahia testuinguru horretan aurrera segitzea dela esan nahi dut, zorroztasun profesionalari eta herritarren eta administrazioarenganako eta gainontzeko solaskideenganako gertutasunari eutsi nahi diogula, eta orain arteko lana egiten segitzea urte askotan.

Iñaki Pariente de Prada

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria



2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 14., 16. eta 17. artikuluetan aurreikusitako Kontseilu Aholku-emailea Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gobernu organo bat da, eta zuzendariari aholku ematea du xede.

Erakunde hauek ordezkaritza dute Kontseilu Aholku-emailean: Eusko Legebiltzarra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoak, euskal toki erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN OSAERA

Hona 2014ko abenduaren 31n Kontseilu Aholku-emaileak zituen kideak, 2/2004 Legearen 16. artikuluaaren arabera:

<i>Nieves Martínez De Antoñana andrea</i>	Lehendakaria. Araubide Juridikoaren zuzendaria. Lehendakaritza Saila
<i>Montserrat Auzmendi del Solar andrea</i>	Legelaria, Eusko Legebiltzarraren ordezkaria.
<i>Maider Ziganda Población andrea</i>	Modernizazio eta Zerbitzuetarako zuzendaria. Lurralde historikoen ordezkaria
<i>Ricardo Ituarte Aspiazu jauna</i>	Santurtziko Udala. Toki erakundearen arduraduna
<i>Eduardo Jacob Taquet jauna</i>	Ingeniaritza Telematikoko irakasle titularra. Informatika Arloa. Euskal Herriko Unibertsitatea
<i>Iñaki Esparza Leibar jauna</i>	Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Oinarrizko Eskubideen Esparrua. Euskal Herriko Unibertsitatea
<i>Iñaki Pariente de Prada jauna</i>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria
<i>Joseba Etxebarria Goikoetxea jauna</i>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusia.

Kontseiluaren lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, Kontseilu Aholku-emailearen Antolaketako eta Funtzionamenduko Arauen 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.



2.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emaileak ohiko bilera bi egin ditu: bata maiatzaren 14an eta bestea abenduaren 3an.

Bileretan gai hauetaz hitz egin zuten:

Maiatzaren 14ko bilera

- X. urteurrena ospatzeko jardunaldia.
- 2013ko Memoria.
- Udako ikastaroak: UPV-EHU eta UEU.
- Euskal Administrazio Publikoari buruzko Lege Proiektua.
- 2014an egindako ekintzen txostena.
- 2014 amaitu bitarteko ekintzen aurreikuspena.
- 2014an egin beharreko azterlanak.
- Lankidetzaren hitzarmen berriei buruzko informazioa.
- 2014ko aurrekontuei buruzko informazioa.


Abenduaren 3ko bilera

- Lehendakaritza berritzea.
- Kontseilu Aholku-emailearen kide bat berritzea:
- lurralde historikoen ordezkaria.
- X. urteurrena dela-eta burututako jardueren gaineko txostena.
- Datuak babesteko agentzien jardunaldia.
- 2014an egindako ekintzen txostena.
- Irizpen garrantzitsuenak.
- Udako ikastaroari buruzko informazioa: UPV-EHU eta UEU.
- 2014an egindako azterlanei buruzko informazioa.
- Euskal Enplegu Publikoari buruzko Lege Proiektuaren txostena.
- Lankidetzaren hitzarmen berriei buruzko informazioa.
- 2015eko aurrekontuei buruzko informazioa.



3. AHOLKULARITZA EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna betetzeko, administrazio publikoek, erakundeek eta korporazioek edo pertsona fisiko nahiz juridikoek Bulegoaren ezarpen esparruan dauden datu pertsonalen tratamenduei buruz egiten dizkioten galderei erantzun behar die.



Kontsultak idatziz, posta elektronikoz, faxez, telefonoz eta modu presentzian egiten dira, eta oinarritzko eskubidearekin zer ikusi handia dutenak eta pertsonak, administrazio publikoek eta bestelako erakundeek zenbait gairen inguruan Bulegoaren iritzia gainera erantzun formala eskatzen duten alderdiak Bulegoaren irizpen bidez ebazten dira.

Era berean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, aholkularitza eginkizuna dela eta, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorren proiektuen gaineko txostenak ere egin behar ditu nahitaez; bai eta administrazio publikoen iritzia menpe jartzen diren xedapen orokorren proiektuei, hitzarmenei eta bestelako tresna juridikoei buruzkoak ere. Hori guzti hori egiten du datu pertsonalak babesteari buruzko araudira egokitzen direla aztertzeko.

3.1. IRIZPENAK


Egiten dizkiguten kontsultei idatziz erantzuten diegu, hala egin behar dela xedatzen baitu 2/2004 Legearen 17 n) artikulua. Bestalde, kontsultei erantzutea aholkularitza eginkizun bat denez, irizpen deitzen diegu. Datu pertsonalen babesaren inguruko gai jakin baten inguruan galderak egiten dituzten administrazioak eta pertsona pribatu, fisiko edo juridikoak dira irizpenen hartzaile zuzenak.

Hona hemen aholkularitza eginkizunaren ezaugarriak:

- Irizpen-eskaerak datu pertsonalen babesarekin lotutako gaiei buruzkoak izan behar dute, eta, bereziki, 2/2004 legearen 2.1 artikuluko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategiei buruzkoak.
- Planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburua den datu-tratamenduaren gaineko deskribapena egin beharko dela eta Bulegoak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.



2014an DBEBn 40 kontsulta jaso ditugu idatziz, eta guztira 40 ebatzi ditugu. Egin dituzten kontsulta guztien % 20 pertsona fisikoenak dira eta gainontzekoak administrazio-enak. Foru eta toki administrazioak izan dira kontsulta gehien egin dituztenak (% 32), eta kontsulta gehien egin duen bigarren administrazioa EAEko administrazio orokorra (% 20) izan da.



Egin dizkiguten kontsultak ikusita, berretsi egiten da datu pertsonalak lagatzea edo komunikatzea dela kezka handiena sortzen duen gaia. Aurten Agentziak datu pertsonal sentsibleei buruzko hainbat kontsulta jaso ditu, osasun datuei buruz hain zuzen ere. Era berean, bere horretan segitu dute langileen ordezkariak datuak lagatzeari buruzko eskabideak eta zinegotziei, kontrol politikoa burutu dezaten, datuak lagatzeari buruzkoak. Udal esparrutik kanpo, behin eta berriz planteatu dute legebiltzarkideen eskubidea administrazio autonomikoaren esku dagoen informazioa atzitzeko.

Gainera, esparru publikoan hasitako hainbat lanek ere arreta berezia jaso dute, adibidez, administrazio publikoen arteko datu trukeei buruzko lankidetzak hitzarmenak, dela laguntza publikoen arloko iruzurraren aurka egiteko edo iruzur fiskalaren aurka egiteko, dela iruzurgile handien zerrendan zabalkundea egiteko. Irizpen horietan indarra jarri da azpimarratzeko halako datuak lagatzeko, atzitzeko edo zabaltzeko, nahitaezkoa dela lege mailako arau baten baimena (DBLOren 11. eta 21. artikulua). Eta nahitaez bete behar dela kalitatearen printzipioa (DBLOren 4. artikulua), eta datu pertsonal horien tratamenduak legezkoak izatea nahi bada.

3.1.1 Irizpen garrantzitsuenak

Irizpenak eskuragarri daude Agentziaren web orrian (www.avpd.eus).

- **JOAN-ETORRIEK ETA IBILGAILU OFIZIALA LAGATZEAK SORTUTAKO GASTUENGATIK ETA MANTENU EDO BAZKARI GASTUENGATIK ERTZAINZAKO GOI-MAILAKO ESKALEK ETA ESKALA EXEKUTIBOEK JASOTAKO ORDAINSARIEI BURUZKO DATUAK LANGILEEN ORDEZKARIEI LAGATZEA**

Enplegatu publikoen datu pertsonalak lagatzeko, interes legitimo bat eta laneko helburu edo xede garrantzitsuren bat egiaztatu beharko da. Zilegi da datuak lagatzea langileen ordezkariak esleituta dituzten kontrol eta zaintza eginkizunak burutzeko, lege izaerako arau batek esaten badu.

Gure ustez, kontsultako datu pertsonalen lagapena ez dago inongo legean aurreikusita.



Gainera, Agentziak ezin du esan zein datu eman daitezkeen sindikatuaren eskubidea gauzatzeko. Baina, DBLOren 4. artikuluan finkatuta dagoen datuen kalitatearen printzipioa ezarriz gero, uste dugu informazio disoziatuak balio dezakeela kontrol eginkizuna gauzatzeko, hau da, zerrenda orokorrak eman ahal zaizkiela ordezkariari, jakin dezaten kalte-ordainak eta konpentsazioak nola dauden esleituta; baina datu horiek lanpostua betetzen ari den pertsonari buruzko datu identifikatzaileei lotu gabe emanda.

(CN13-046 IRIZPENA)

▪ **ALDI BATERAKO EZINTASUNAK KUDEATZEKO PROZEDURA - 900 LINEA**

Enplegatu publikoen aldi baterako ezintasunak lagatzeko, datuen kalitatearen printzipioa bete behar da; beraz, ezin da eskatu gaixotasuna edo patologia deskribatzen duen txostenik, langilearen lanerako ezintasun-agiria baizik.

(CN13-048 IRIZPENA)

▪ **INDARKERIA POLITIKOAREN BIKTIMEN GAINEN DATU BILKETA**

2013ko Memorian jaso genuen CN13-036 Irizpenaren irizpen osagarria da.

Datu bilketa egiten denean dagoen informatzeko betebeharraren (5. artikulua) eta datuak tratatu ahal izateko adostasunaren beharraren (6. eta 7. artikulua) arteko desberdintasuna argitzen du.

Irizpenak azaltzen du ez dagoela datu babesik hildako pertsonentzat, eta, egotekotan, bizirik dauden pertsonen informazioa agerian jar daitekeelako izango dela.

Kasu honetan, fitxategiak, bakarra bada, goi-mailako segurtasun neurriak beharko ditu, osasun eta ideologia datuak dituelako.

Liburuak, Internet bezala, ez dira gizarte komunikabideak, eta, beraz, ez dira DBLOren 3 j) artikuluko jendearen eskurako iturriak.

(CN13-050 IRIZPENA)

▪ **LAN KONTRATAZIOKO ESPEDIENTE BAT LEGEBILTZARKIDE BATI LAGATZEA**

Langile baten lan kontratazioaren espedientea lagatzea legebiltzarkide bati, legebiltzarkideak kontrol politikoa egiteko. Hori egiteko lege gaikuntza badago, Legebiltzarreko Erregelamenduak babesten duelako; baina, DBLOren 7.3 artikuluan xedatutako datu lagatzea burutzeko, informazioa nahitaezkoa izan beharko da kontrol eginkizunerako.

(CN13-051 IRIZPENA)



▪ ***EUSKADIKO KIROL ERAKUNDEEN ERREGISTROKO DATUAK LAGATZEA***

Kirol Erakundeen Erregistroaren publizitate formala betetzearen ondorioz egin beharreko datu lagatzeetarako ez da behar adostasunik, lege gaikuntza dagoelako. Hori dela eta, interesdunei informatzeko obligaziorik ez dago; ez zaie esan behar zein datu-lagatze egin diren Erregistroa formalki argitaratu izanaren ondorioz; izan ere, berariaz baitaude Euskal Kirolari buruzko Legean jasota.

(CN13-052 IRIZPENA ETA CN14-001 IRIZPENA)

▪ ***AURREZKI KUTXETAKO GOI-KARGUDUNEN ERREGISTROA ATZITZEA***

Aurrezki Kutxetako Goi-kargudunen Erregistroko datuak laga daitezke xedea ikerkuntza bada, eta ukituen adostasunik gabe laga daitezke 11.2 e) artikuluko betekizunak betetzen badira. Eskabidearekin batera egiaztatu beharko da hori. Baina, ezin izango dira laga administrazio edo zigor-arloko arau-hausteei buruzko datuak.

(CN13-053 IRIZPENA)

▪ ***ERROLDAKO ZENBAIT DATU UR PARTZUERGO BATI LAGATZEA BETEARAZPEN BIDEZ TASAK KOBRATU AHAL IZATEKO***

Zilegi da ur partzuergo batek udal bati eskatutako NAN zenbakia lagatzea, betearazpen bidez tasak kobratzeko, lege batek agintzen duelako (DBLOren 2.2a artikulua): lurralde historikoko zergei buruzko foru araua da lege gaitzailea; hain zuzen ere, hain zuzen ere, kasu honetan NANA zerga arloko datua delako.

(CN13-054 IRIZPENA)

▪ ***GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILTZAILAEN DATUAK LAGATZEA***

Kontsulta-idazkia irakurrita ulertzen da txartel eskatzaile bakoitzari txartel zenbaki bana emango zaiola, eta horrek esan nahi du txartel zenbakia eskatzailearen zenbait daturi lotuta dagoela (izen-abizenak, NANA, zein kolektibotakoa den, hau da, tarifetan zein abantaila eskatzen dituen (65 urtetik gorakoa, familia ugaria...), eta azken finean, bere identitateari.

Ahalegin handirik egin beharrik gabe eta edozein bide erabilita, lotu badaitezke txartelaren identifikazio zenbakia eta pertsona, orduan datua pertsonala izango da. Helbideari buruzko datuak ere datu pertsonalak izango dira, etxebizitzaren titularrak identifikatzea erraza bada ahalegin handiegirik edo proportzioz gaundikorik egin gabe.

Azken finean, laga behar diren datuak ez badira datu pertsonalak, tratamendua ez da DBLOren menpe egongo. Baina, datu pertsonalak laga behar badira, eta datu lagatzea zilegi izatea nahi bada ukituaren adostasunik gabe, DBLOren 11.2. artikulua xedatutakoa bete beharko da nahitaez.

(CN14-002 IRIZPENA)



▪ **FORU ALDUNDIAREN OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ETA LURRALDE HISTORIKOKO UDALEN ARTEKO INFORMAZIO LAGAPENEI BURUZKO LANKIDETZA HITZARMENA**

Foru aldundiari zerga arloko izaera duen informazioa lagatzea zilegi da, lege gaikuntza dagoelako. Hala ere, DBLOren 4. artikulua aldarrikatzen duen datuen kalitatearen printzipioa ezarri beharko da, eta, ondorioz, ez da datu lagatze masiborik egingo, eta bakar-bakarrik lagako dira beharrezkoak diren zerga datuak eta ukitutako pertsonen buruzkoak.

(CN14-003 IRIZPENA)

▪ **KORPORAZIOKO KIDE BATI SARRERA ETA IRTEERA ERREGISTROKO ZERRENDATA LAGATZEA**

Legez zilegi da zinegotziei lagatzea sarrera eta irteera erregistroko datuak; baina, datuen kalitatearen printzipioa erabiliz gero, ezin zaie datu lagatze masiborik egin, eta bereziki babestutako datuak egonez gero, zuhurtzia handiz ibili beharko da.

(CN14-004 IRIZPENA)

▪ **FORU OGASUN BATEK EGINDAKO IKUSKARITZA ESPEDIENTE BATEKO INFORMAZIOA LAGATZEA UDAL BATI**

Zerga arloko administrazio batek, interesdunaren adostasun gabe, beste bati datuak lagatzea zilegi da, interes legitimo bat badago tartean, eta interes horrek ez badu datuen titularraren esparru intimoa kaltetzen.

(CN14-005 IRIZPENA)

▪ **POLIZIA BULEGOETAN INSTALATUTAKO TELEBISTA-ZIRKUITU ITXIKO (CCTV) SISTEMAKO SEGURTASUN KAMERA BATEN GRABAZIOAK LAGATZEA**

Kasu honetan datu-eskabideak datu pertsonalak lagatzea dakar. DBLOren 3i) artikulua definizioak dioenez, hori egitea: "interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea" da.

Datu lagatzeen eta datu komunikazioen gaineko erregimen orokorra DBLOren 11. artikuluan dago xedatuta, eta hona lehenengo idatz-zatiak dioena: "Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da".

Hala ere, arau orokor horrek hainbat salbuespen ditu, 11. artikuluko 2. idatz-zatiak dioenez. 11.2 artikuluan jasotako salbuespenen artetik, kasu honetan azpimarratzea merezi diguna da a) idatz-zatiak aipatzen duena: "Lege batek baimentzen badu lagapena".



Eta 30/1992 Legearen bidez (35. eta 37. artikulua) norberaren datuaz atzitzez gain, hirugarrenenak ere atzitu daitezke.

Antzeko kontsulta batzuetan ere esan dugunez, Konstituzioaren 105 b) artikulutik datorren honako eskubide hau, hau da, artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidea kontrolatzea eta babestea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, ikusi bestela zer esan zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2009ko uztailaren 8ko epaian: “Demanda egileak azaldutako portaerak ez du zer ikusirik datu babeserako oinarritzko eskubidearekin, 30/1992 Legearen 35a) artikuluan edo 37.2 artikuluan araututako artxibo eta erregistroetara sartzeko eskubidearekin baizik. Hau da, prozedura jakin batean dagoen dokumentazioa eskuratzeari buruz ari da demanda-egilea, eta hori Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eskumenetik kanpo dago. ”

Hala ere, esan behar dugu bakar-bakarrik tratamenduaren helburuarekin zer ikusia duten datuak atzitu daitezkeela, eta espedientean dauden gainontzeko datuak ezin direla atzitu.

(CN14-006 IRIZPENA)

▪ **MEDIKU TXOSTEN OSOA AURKEZTEKO OBLIGAZIORIK EZ DAGO ENPLEGATU PUBLIKOEK ORDAINSARIEN % 100 KOBRATU AHAL IZATEKO**

Ebakuntza kirurgikoaren mediku txostena eskatzea langile publikoei ordainsarien % 100 kobratu ahal izateko ebakuntza kirurgikoagatik aldi baterako ezintasun egoeran daudenean, gehiegizko eskaera da eta DBLOren 4. artikulua xedatutako datuen kalitatearen printzipioaren aurka dago. Nahikoa da ebakuntza kirurgikoa egin duen ospitaleko ziurtagiria aurkeztea.

(CN14-007 IRIZPENA)

▪ **UDALBATZETAKO AKTAK ARGITARATZEA UDALETXEKO IRAGARKI-OHOLEAN ETA UDAL WEB ORRIAN**

Saioetako aktak argitaratzea legezkoa da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen arabera; baina, kalitatearen printzipioa bete behar da eta ez da bereziki babestutako daturik argitaratu behar.

(CN14-008 IRIZPENA)



▪ ***EZGAITUEN LAN POLTSA BATEKO PERTSONA BATEN EZGAITASUN DATUARI BURUZKO INFORMAZIOA***

Lan poltsa bateko pertsonen ezgaitasun datuari buruzko informazioa eskatu dute, lan poltsan zein hurrenkera duten eta zein kontratazio egin dituzten jakiteko. 30/1992 Legean jasotako atzipen mota bat da, eta ebatzi dugu datu hori atzitu daitekeela eskatzailea interesduna delako eta datu hori garrantzitsua delako lan poltsak ondo kudeatzen dituztela gainbegiratzeko.

(CN14-009 IRIZPENA)

▪ ***EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA "GASTEIZ ON" ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN BAITAKO DATU LAGATZEA***

Legezkoa da diruz lagundutako erakunde horrek datuak lagatzea, nahiz eta interesdunaren adostasunik ez izan, jasotako diru laguntza justifikatzeko. Lege gaikuntza Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean dago.

(CN14-010 IRIZPENA)

▪ ***URAREN FAKTURAK ORDAINTZEARI UTZI DION ABONATUARI BURUZKO DATUAK LAGATZEA HIGIEZIN BATEN JABEARI***

Ez da zilegi higiezinaren jabeei lagatzea maizterren ur kontsumoari buruzko datuak, harik eta jabeak interesdun bihurtu arte.

(CN14-012 IRIZPENA)

▪ ***UDAL BATEKO ZINEGOTZIEK DOKUMENTUEN SARRERAK ETA IRTEERAK ERREGISTRATZEKO ERABILTZEN DEN BISCAYTIK PROGRAMA INFORMATIKOA ATZITZEKO ESKABIDEA***

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak argi dio sarrera eta irteera erregistroa atzitu dezaketela; hala ere, datuen kalitatearen printzipioak dio datu pertsonalak erabiltzean proportzionaltasunaren printzipioa aplikatu behar dela, eta proportzionaltasunak ez du uzten atzipen masiboak egiten, udalari egin dioten eskabideak nahiko lukeen bezala.

(CN14-013 IRIZPENA)

▪ ***DATU PERTSONALA ZER DEN***

Datu babesari buruzko araudiak ematen duen babesak ez ditu bere baitan hartzen pertsona juridikoak. Merkataritza edo industria jarduerari lotuta dauden eta enpresari izaerarekin jarduten duten banakako enpresarien datuak dituzten fitxategiak ez daude DBLOren menpe. Jarduera pribatua eta jarduera profesionala ezin badira ondo bereizi, ordea, orduan banakako enpresarioaren datuak DBLOren menpe egongo dira.



Lanbidean enpresa moduan eratuta aritzen ez diren profesionalen datuen tratamenduetan DBLO bete beharko da.

(CN14-014 IRIZPENA)

▪ **"KOMUNIKAZIO-LINEAK GRABATZEA" FITXATEGIA ATZITZEA**

Segurtasun agiriak finkatu beharko du zeinek izan dezakeen sarbidea fitxategiak dituen grabazio sistemetan eta datuetan, eta zein diren sartzeko baimena duen pertsonalak nahitaez bete behar dituen segurtasun neurriak.

(CN14-015 IRIZPENA)

▪ **UNIBERTSITATE TITULU BATEN JABETZARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURATZEA**

Abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuaren 4.3 artikulua zera dio: "Unibertsitateko Tituludun Ofizialen Erregistro Nazionala atzitzeko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 37. artikuluan eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutako bete beharko da". Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 37.1 artikulua dio herritarrek erregistroetara jotzeko eskubidea dutela eta, espedienteren batekoak izanik, administrazioko artxiboetan dauden agirietara irispidea izateko eskubidea ere badutela, espedienteak ikusteko eskaera egiten den egunean espediente horien prozedurak amaituta badaude.

Baina, 37. artikuluen 2. eta 6. idatz-zatiek xedatzen dituzte sarbide edo atzipen eskubide honek dituen mugak, baldintzak eta salbuespenak. Era berean, lege manu horrexek berak arautzen du eskubidea baliatzeko modua (37.7 artikulua) eta eskubidearen helmena (37.8 artikulua).

Beraz, hori hala izanik eta ikusita DBLOk ukituen adostasun beharrik gabe ere datuak lagatzea legezkoa dela dioela, adibidez, lege izaerako arau batek baimentzen badu datu lagatzea [DBLOren 11.2 a) artikulua], ateratzen dugun ondorioa da 30/1992 Legea dela interesdunen adostasunik gabeko datu lagatzeak baimentzen dituen legezko araua, baina legean finkatutako mugak eta baldintzak betez.

Konstituzioaren 105 b) artikulutik eratorritako artxiboak eta erregistroak atzitzeko eskubidea kontrolatzea eta babestea ez dagokio Datuak Babesteko Euskal Bulegori. Beraz, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren menpeko Unibertsitateko Tituludun Ofizialen Erregistro Nazionalan dagoen hirugarrenei buruzko informazioa atzitzeko eskubideaz baliatzeko, bertara jo beharko da.

(CN14-016 IRIZPENA)



▪ **UDAL IBILGAILUETAN GEOLOKALIZAZIO SISTEMAK (GPS) JARTZEA, UDAL IBILGAILUAK AHALIK ETA MODURIK ERAGINKORRENEAN ETA EFIKAZENEAN KUDEATZEKO**

Lortu nahi duten helburua lortzeko, ibilgailuak lokalizatzeko sistemak ematen dituen datuak eta ibilgailu horiek erabiltzen dituzten pertsonen buruzko datuak uztartzen badira, orduan DBLOren menpeko datu tratamendutzat joko da.

Kasu honetan kontsulta egin duen udalak datuak bildu aurretik deklaratu egin beharko du fitxategia, otsailaren 25eko 2/2004 Legeak xedatutako moduan eta DBLOren 20.2 artikuluko edukiekin. Horrekin batera, kontuan izan behar da fitxategiaren segurtasun maila (Erregelamenduaren 80. artikulua) ere finkatu beharko dela, bildutako datuak zein motatakoak diren kontuan hartuta eta Erregelamenduko 81. artikuluko irizpideen arabera.

Era berean, gogora ekarri nahi dugu DBLOren 5. artikuluan finkatutako datuak bildu aurretik ukituei informazioa emateko betebeharra eta Erregelamenduaren 18. artikuluko zuhurtziak.

Langileen estatutuaren 20.3 artikulua ez dio berez zilegitasunik ematen datuen tratamenduari; baina, langileari aldeztatu behar bezala azaldu badiote neurri hori jarriko dutela, orduan bai. Edozelan ere, DBLOren 4.2 artikulua xedatzen duenez, datuak ezingo dira erabili bestelako helburuetarako.

Datuak tratatzeko adostasuna eskatu behar dela (DBLOren 6. artikulua) dioen arau orokorrari buruz esan behar dugu ibilgailua eta ibilgailuan daudenak GPS bidez lokalizatzeko datu tratamenduaren xedea bada, udalaren eskumeneko eginkizunen artean, udal ibilgailuen kudeaketa ere ahalik eta eraginkorrena eta efizienteena izatea, orduan baduela DBLOren 6.2 artikulua babesa.

Zerbitzua kudeatzeko kontratua nolako baldintzekin egingo duten ez dakigunez, kontu handiz adierazi nahi dugu zerbitzuaren adjudikaziodunak ezin izango dituela ibilgailuak eta erabiltzaileak bata bestearekin lortu. Adjudikaziodunak ibilgailuaren jardura eta ibilbideak bakarrik identifikatu ahal izango ditu. Beraz, DBLOren ondorioetarako, zerbitzuaren adjudikazioduna ez da tratamenduaren arduraduntzat hartuko.

Baina, geolokalizazio sistema ezarri eta zerbitzuaren adjudikaziodunak erabiltzaileen datu pertsonalekin lotzeko gaitasuna badu, orduan tratamendu-eragiletzat jo beharko da, baldin eta DBLOren 12. artikuluan xedatutako betekizunak betetzen badira.

(CN14-018 IRIZPENA)



▪ **ANBULANTZIAK EGON BEHARKO DUTEN EKITALDIETAN DAUDEN DYA-KO LANGILEEN GAINEN INFORMAZIOA LAGATZEA UDAL BATI**

DYA-Errepidean Laguntzeko Elkartek galdetu zigun ea udal batek eskatu ahal dizkien anbulantziako langileen tituluak, ekitaldi batzuetarako anbulantziak eskatzen badituzte. Gure irizpena baiezkoa da, negozio harremana dagoelako eta interes legitimoa.

(CN14-019 IRIZPENA)

▪ **ETXEBIZITZA BEREAN ERROLDATUTA DAUDEN PERTSONA GUZTIEN BAIMENA ESKATZEA, BIZIKIDETZAKO ERROLDA KOLEKTIBOKO AGIRI BAT EMATEKO**

Bizikidetzako errolda kolektiboko agiriak egiteko, bertan ageri diren pertsona guzti-guztien adostasuna beharko da, eskatzailea legeko ordezkaria denean izan ezik.

(CN14-020 IRIZPENA)

▪ **ZERGA IRUZURGILE HANDIEN ZERRENTA ARGITARATZEA**

Gaur egun ez dago legerik iruzurgile handien zerrenda argitaratzea gaitzen duenik. Hala ere, planteatu dute halako datuak argitaratzea ahalbideratuko lukeen balizko foru arau bat onartzea konstituzioaren arabera izango ote litzatekeen. Azterketa hainbat ikuspegi kontuan hartuta egin da: jokoan dauden eskubideak eta interesak, ukitutako datuen izaera eta proportzionaltasun printzipioa.

(CN14-021, CN14-029, CN14-030 IRIZPENAK)

▪ **EBAZPEN JUDIZIALAK PRENTSA BIDEZ ZABALTZEA INPLIKATUTAKO PERTSONAK IDENTIFIKATUZ**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez du gai hori ebazteko eskumenik, eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia aintzat hartuta, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ebatzi beharreko auzia da. Laguntzeko asmoz, baina, irizpenean jaso ditugu auziaren arau-esparrua eta araudiak eta jurisprudentziak ezartzen dituzten mugak.

(CN14-022 IRIZPENA)

▪ **KORPORAZIOKO KIDEEN POSTA ELEKTRONIKO PERTSONALEKO HELBIDEETARA BIDALTZEA TOKIKO GOBERNU ORGANOEEN DEIALDIAK**

Zilegi da eta datu pertsonalak babesteko araudiaren arabera tokiko gobernu organoen deialdiak korporazioko kideei bidaltzea erakundekoa ez den posta elektronikoko helbide baten bidez; baina, zuhurtziazko zenbait neurri hartuta.

(CN14-023 IRIZPENA)



▪ **ARTXIBO HISTORIKOAK ATZITZEA ETA ARGITARATZEA (EUSKADIN GERRA ZIBILARI BURUZKO AHOZKO TESTIGANTZEI, IDAZKIEI ETA IKUS ENTZUNEZKOEI BURUZKO FONDOA)**

Artxibo historikoetarako sarbideari buruzko egungo lege esparrua nahikoa konplexua eta nahasia da. Beraz, komeniko litzateke gaiari buruzko legedia berritzea, ezarri beharreko lege-erregimena argitzeko. Horrek asko lagunduko liekeelako artxibo historikoen kudeaketaz arduratzen direnei segurtasun juridiko handiagoz jokatzeko.

Artxibo historikoetan dauden dokumentuak atzitzeko, baldin eta dokumentuetan pertsonen intimitatea ukitzen duen informazioa badago, ukituaren berariazko baimena beharko da, ukitua bizirik badago.

Halako datuen tratamendua Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen printzipioen eta betebeharren menpe daude.

Dokumentazioa atzitu ahal izateko, komenigarria litzateke eskatzaileari eskatzea ukitua hilda dagoela egiaztatzeko.

(CN14-024 IRIZPENA)

▪ **KOMUNIKABIDE BATEK LANTOKIAN EGINDAKO IKUS ENTZUNEZKO ZENBAIT GRABAZIO**

Informaziorako eskubidearen aitzakiarekin irudiak grabatzea eta lanpostu motagatik grabazioa jasan behar izatea eta datuak babesteko eskubidea. Bi eskubideen arteko talka. Informaziorako askatasuna gailenduko da, baldin eta benetako informazioa bada eta garrantzi publikoa badu; baina, lan harremana kasuz kasu aztertu beharko da, jakiteko ea lan harremanaren babesean irudirik graba daiteken.

(CN14-025 IRIZPENA)

▪ **JARDUERA EKONOMIKOEN DIREKTORIOAN "OPEN DATA" FORMATUAN DAUDEN DATUAK LAGATZEA**

Eustatek eskatu zigun txosten bat egiteko argitzeko ea zilegi den Eusko Jaurlaritzari lagatzea jarduera ekonomikoen direktorioan jasotako datuak. Agentziaren aburuz, datu babesaren ikuspuntutik ez dago eragozpenik tartean pertsona juridikoak badaude; baina, banakako enpresarioen datuak lagatzeari dagokionez eragozpenak daude, eta kasuz kasu aztertuko beharko dira.

(CN14-026 IRIZPENA)



▪ **SEGURTASUN SISTEMA BATEK ADMINISTRAZIOKO BULEGOETAN GRABATUTAKO IRUDIAK LAGATZEA LEGEBILTZARKIDE BATI**

Datu pertsonalak babesteko esparrutik begiratuta, esan ostean irudiak ez direla bereziki babestutako datuak edo datu "sentsibleak", gogorarazi behar dugu CN13-051 irizpenean zorrotz aztertu genituela legebiltzarkideek zein eskubide eta eskumen dituzten, eta egiaztatu genuen Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11. artikulua administrazioei, erakundeei, organismoei eta enpresei datuak, txostenak eta dokumentuak eskatzeko behar adina ahal aitortzen diela legebiltzarkideei.

Beraz, esan behar dugu Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduak baduela nahikoa lege gaikuntza, eta, ondorioz, DBLOren 11.2 a) artikuluan ezarritako salbuespena ezar daitekeela, ukituaren adostasuna ez eskatzeko. Eta hala dela uste dute datu babesaren esparruko beste kontrol agintari batzuk ere, dena delako autonomia erkidegoetako legebiltzarrek bertako gobernuei egindako eskaerak aztertzean.

Ondorioz, eta informazio eskabideak betetzen baditu Autonomia Estatutua garatuz Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduan finkatutako baldintzak, eta datuak erabiltzen badira bi arau horiek Legebiltzarrari esleitzen dioten kontrol eginkizunarekin lortutako helburuetarako bakarrik, esan behar da kontsulta honetan aztertzen ari garen eskabideak aipatzen duen datu-lagatzeak baduela 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikuluen babesa.

Baina, beti ere alde batera utzi gabe datuen eta helburuen arteko proportzionaltasuna, eta fitxategiaren arduradunari aginduta datu eskaeraren helburua betetzeko behar diren datuak bakarrik emateko, behar beharrezkoak direnak bakarrik.

Esanak esan, eman beharreko informazioaren proportzionaltasunaren gaineko balorazioa egitea ez dagokio Agentziari, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11.4 artikulua xedatzen duenez.

Datu horiekin gerora egiten diren tratamenduek ere datu pertsonalak babesteko araudia bete beharko dute. Beraz, ezingo da gauzatu lege babesik ez duen tratamendurik.

(CN14-027 IRIZPENA)

▪ **JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGAN ALTAN EMANDA DAUDEN PERTSONA FISIKOEN ETA JURIDIKOEN DATUAK LAGATZEA**

Elkarte batek eskatu dio udal bati jarduera ekonomikoen zergan altan emanda dauden pertsona fisikoek eta juridikoen datuak lagatzeko. Halako informazioa zerga arloko fitxategietako informazioa da, eta, beraz, informazio erreserbatua da. Ondorioz, gure ustez, ez dago informazioa lagatzeko lege gaikuntzarik.

(CN14-028 IRIZPENA)



▪ **ALDUNDI BATEKO ZENBAIT SAILEN ARTEAN ODONTOLOGIA ZERBITZURAKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZEI BURUZKO DATUAK LAGATZEA ELKARRI**

Zilegi da foru ogasunari lagatzea odontologoek egindako fakturak lege gaikuntza dagoelako bai zergei buruzko araudi orokorrean bai foru araudian. Zenbait fakturatan gehiegizko datuak agertzeko arriskuak ez du ahultzen informazioa emateko obligazioa, eta ezin zaio lagatzaileari ezarri gehiegizko informazioa aztertzeke eta baztertzeke ardura.

(CN14-031 IRIZPENA)

▪ **LANBIDE-REN ETA ALDUNDI BATEKO OGASUN ETA FINANTZA SAILAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA INFORMAZIOA TRUKATZEKO ELKARREN ARTEAN**

Aurreikusitako informazio trukaketak badu lege gaikuntza, eta, enpleguaren arloko araudi sektorialak eta lurralde historikoko zergei buruzko foru arauak baimentzen dute, nahiz eta, datuen kalitatearen printzipioa ezarri beharko den, bai eta segurtasunarena ere, ukitutako fitxategiek goi-mailako segurtasuna dutelako.

(CN14-032 IRIZPENA)

▪ **UNIBERTSITATE BATEKO LANGILEEN ORDEZKARIEI INFORMAZIOA LAGATZEA**

Irizpenak, laburtuta bada ere, azaltzen du nola saiatu diren orain arte konpontzen Konstituzio Auzitegia eta beste kontrol organo batzuk langileen ordezkariak informazioa eskuratzeko duen eskubidearen eta langileen datu babeserako eskubidearen arteko oreka.

Azterketa hori egin eta gero, atera den lehenengo ondorioa da, izaera orokorrarekin, Plangintza Batzordeak lanpostu zerrendei eta plantillen plangintzei buruz esleituta dituen eginkizunak modu egokian garatu ditzakeela unibertsitatean lan egiten duten pertsonen buruzko datuak modu masiboan laga beharrik gabe. Datuak komunikatzea zilegi izango da bakar-bakarrik datuak lagatzea nahitaezko neurria izateaz gain, datu babeserako eskubidea sakrifikatzea ere onargarria bada proportzionaltasun printzipioari dagokionez, legeak ordezkari sindikalei aitortzen dizkien betebeharrak betetzen direla bermatzeko.

Bigarren ondorioa da unibertsitateari atxikitako pertsonal teknikoek, administrazio ebazpenak edo egintzak burutu ala gauzatu aurretik, egindako txosten juridikoak eta justifikazio memoriak osagarri logikoak eta beharrezkoa badira ordezkari sindikalek esleituta dituzten eskubideak eta ahalak baliatzeko halakoetan, laga egin beharko zaizkiela datuok ordezkari sindikalei, behar bezala burutu dezaten sindikatu ekintza.



Azkenik, irizpenak dio epaiak ezin direla jendearen eskurako iturritzat jo; beraz, epaiak disoziatu gabe laga ahal izateko ordezkari sindikalei, nahitaez aztertu beharko da ea epaiaren edukia garrantzitsua eta interesekoa den langileen ordezkariak esleituta dituzten eginkizunak burutu ahal izateko; eta, horrez gain, aztertu beharko da ea epaiak ematen duen informazioa ezin den ondo ulertu dena delako datu pertsonala kenduta; eta erabakiz gero, ezin dela ulertu, ondo arrazoitu beharko da zergatik.

(CN14-033 IRIZPENA)

3.2. TXOSTENAK

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

- 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorretako egitasmoen buruzko txostenak egitea, 17.1.h) artikulua xedatzen duenaren arabera.
- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapen buruzko proiektuen gaineko txostenak egitea, 2/2004 Legearen 17. 1.l) artikulua eta DBEBren Estatutua onartzen duen urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren 5 a) artikulua xedatzen dutenaren arabera.
- Bestelako lege-xedapen eta hitzarmen buruzko txostenak egitea, ebazteko ea datu pertsonalei buruzko araudiarekin bat datozen.
- DBEBren Lege Aholkularitzaren txostenak egitea.

2014an 9 legezkotasun txosten egin dira.

Bost (5) lege aurreproiektu eta 4 lankidetzak hitzarmen informatu dira.

Hona informatu ditugun proiektuen zerrenda:

- IL13-004 Larrialdiak Kudeatzeko Legea Aldatzeko Lege Aurreproiektua.
- IL14-001 Euskal Administrazio Publikoari buruzko Lege Aurreproiektua.
- IL14-002 DBEBren eta Deustuko Unibertsitatearen arteko Lankidetzarako Esparru Hitzarmena.
- IL14-003 DBEBren eta Mondragon Unibertsitatearen arteko Lankidetzarako Esparru Hitzarmena.
- IL14-004 DBEBren eta Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofizialaren eta Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkarte Ofizialaren Arteko Lankidetzako Esparru Hitzarmena.
- IL14-005 DBEBren eta CTAINL-Nuevo Leóngo Estatuko Gardentasuneko eta Informazioa Atzitzeko Batzordearen arteko Lankidetzak Hitzarmena.
- IL14-006 Euskal Herriko Fundazioei buruzko Lege Aurreproiektua.
- IL14-007 Adikzioei buruzko Legearen Aurreproiektua.
- IL14-008 Euskal Enplegu Publikoaren Lege Aurreproiektua.



3.3. AHOLKULARITZA BILERAK

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak duen izaera proaktiboa eta zerbitzu publikoa izateko asmoa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait administrazioekin, eta bilera horietan hainbat gairi buruzko aholkularitza eman diegu, esate baterako, obligazio formalak betetzeari buruz eta administrazio horien eskumen esparruan burutu behar dituzten jarduerari buruz ere bai.

2014an Lege-aholkularitzak hainbat erakunderekin aritu da lankidetzan, eta, besteak beste, honako bilerak egin ditu:

- Bilera bat Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarekin, Osakidetzaren eta foru aldundien arteko lankidetzak hitzarmen bat dela eta, aldundien eskumeneko eguneko zentroen erabiltzaileen historia klinikoa partekatzeke.
- Bilera bat Enplegu eta Politika Sozialen Sailarekin Babes Ofizialeko Etxebizitzaren jabeen zehapen espedienteak instruitzeko datuak lagatzeko.
- Bilera bat Euskal Herriko Bakearen aldeko Koordinakundearekin. Erakundea likidazio fasean dago. Bilera izan da erakundearen artxiboak euskal administrazioeko artxibo historikora bidaltzeari buruz.
- Bilera bat Administrazio Publikoa eta Justizia Sailarekin, justiziako langile euskaldunen zerrenda bat sortzeari buruz.

Azpimarratu nahi dugu aholkularitza lan hau ez dugula egiten bakarrik administrazio bakoitzak dituen kezak argitzeko, datu babesaren kultura zabaltzeko eta hedatzeko konpromisoa betetzeko baizik.

3.4. TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENKO ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

Agentziak egunero eta etengabe eskaintzen die aholkularitza herritarrei, administrazio publikoei eta bestelako erakundeei, bertatik bertara egiten dituzten bileren bidez eta mezu elektronikoak edo telefono deiak erantzunez. Badakigu herritarrek asko eskertzen dutela zerbitzu hau eta oso ondo baloratzen dutela. Gainera, kanal ezin hobea da datuak babesteko eskubidea gizartean zabaltzeko.

2014an Datuak Babesteko Euskal Bulegoak 800 kontsulta inguru erantzun eta ebatzi ditu. Herritarrek eta euskal administrazioek gehien erabiltzen dutena (% 70) telefono bidezko arreta da. Hala ere, ikusi da gero eta gehiago erabiltzen direla gainontzeko informazio kanalak, adibidez, posta elektronikoa (% 25) eta aurrez aurreko arreta (% 5).

Kontsultak batez ere herritarrek (% 56,45) eta euskal administrazio publikoek (% 35,44) egin dituzte. Pribatutasunaren esparruko profesionalak eta erakunde pribatuak egin zituzten gainontzeko kontsultak.

Agentziak batez honako gaiei buruzko aholkularitza eman du: datu lagatzeak eta datu argitalpenak, AZETA eskubideak, fitxategien erregistroa eta bideozaintza.



2014an datu pertsonalak lagatzeari eta argitaratzearen gaineko kontsulta ugari ebatzi diren (% 35,26). Asko hasi da informazio pertsonala zabaltzea eta argitaratzeari buruzko kontsulta kopurua, batez ere, aldizkari ofizialetan, Interneten, erakunde web orrietan eta iragarki oholetan, osoko bilkuren erretransmisioetan eta osoko bilkuren aktak argitaratzean egiten dena, eta informazio pertsonala prentsa bidez hedatzen denean ere bai.

Aurreko urteetan bezala, Agentziak hainbat kontsulta jaso ditu fitxategien izaerari, deklarazioari eta inskripzioari buruz (% 18,68).

AZETA eskubideak baliatzeari buruz, esan behar dugu jarraitzen dutela ezerezte eskubideari buruzko kontsultak egiten (% 14,34), gaur egun herritarrak gehien kezkatzen dituen kontua delako (datu pertsonalak ezereztea aldizkari ofizialetan, ahazteko eskubidea Interneten, polizia aurrekariak ezereztea, nola irten zordunen fitxategitik ...). Eskubide horiek baliatzeko ereduak eta aholkularitza ere eman zaie herritarrei.

Agentziak gune publikoetako bideozaintzari, jabeen erkidegoei eta erakundeei buruzko hainbat kontsulta ere ebatzi ditu, pertsonen pribatutasunerako eskubidean eragin handia dutelako.

2014an, aurreko urteetan legez, administrazio publikoek kontsulta asko egin zituzten erroldako fitxategiaren tratamenduari buruz, eta asko ugaltu dira artxibo eta erregistroetarako sarbideari buruzkoak. Tratamendu-eragileari (DBLOren 12. artikulua) eta tratamendu-eragileen eta fitxategien arduradunen arteko informazio fluxuari buruzko kontsultak ere asko ugaltu direla nabaritu da, bai eta datuen kalitatearen printzipioari buruzkoak ere (DBLOren 4. artikulua).

Azkenik, azpimarratu behar da osasun datuen, gizarte zerbitzuen esparruko datuen, hezkuntza esparruko eta adin txikikoen esparruko datuen gaineko kontsulta kopurua ere handia izan dela.



4. KONTROL EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak kontrol eginkizuna burutzeko, datuak babesteko araudia bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal administrazio publikoek behar bezala ezartzen dutela ere kontrolatzen du; eta, hala badagokio, administrazio horien arau-haustea deklaratzeko dituzten administrazio horien kontura tratamendu arduradunaren eginkizunak burutzen dituzten enpresa pribatuei isunak ezartzen dizkie.

Horretaz gain, herritarrek aurkezten dituzten atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak (“AZETA eskubideak” izenez ere ezagunak) babesteko erreklamazioak ebazten ditu.


4.1. ESKUBIDEEN BABESA

Eskubideak babesteko prozedura Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 9.2 artikuluan aurreikusita dago, eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 11. artikuluan dago garatuta. Bertan esaten denez, DBEBri babes eskea egin ahal izateko, lehendabizi AZETA eskubidea erabili behar izan du babes-eskatzaileak dagokion administrazioan, eta administrazio horrek ez bete, osorik edo zati batean, eskaera.

2014an lehenengo tokia izan dute ezerezte eskubidearen inguruko erreklamazioek (10), eta bigarren lekuak atzipen eskubideari buruzkoak (6).

Kopuru horiek argi uzten dute herritarren AZETA eskubideak baliatzen dituztenean duten lehenengo buruhaustea dela nola jakin haien zein datu tratatzen dituzten; eta bigarrena dela nola lortu ezerezte.

Guztira 16 erreklamazio ebatzi dira, eta horietatik % 50 onartu egin dira, eta % 12 ezetsi.



Babes eskabideari buruzko hainbat erreklamazio ez dira onartu, batzuk babes eskabidea aurkeztu aurretik ez dutelako erreklamaziorik aurkeztu dagokion administrazioan, eta beste batzuk AEPDren eskumenekoak direlako.

Erreklamazio horietako batzuk ez dira DBLOren 15. artikuluan xedatutako norberaren datuen gaineko atzipen eskubideari buruzkoak (horiek babestea DBEBren ardura da), baizik eta 30/1992 Legearen 35. eta 37. artikuluetan xedatutako artxiboetan eta erregistroetan sartzeko eskubideari buruzkoak (19/2013 Legea, eta Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 17/2013 Legearen idazkeraren arabera, beti ere).



Hona 2014an ebatzitako babes eskeak:

- ET13-016: Datuak atzitzeko eskubidea baliatzea udalaren aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET13-017: Datuak ezerezteko eskubidea baliatzea udalaren aurrean. Ezetsi egin da, eskatutako datuak epe barruan ezereztu dituztelako, baina ebazpena ezin izan zen epe barruan jakinarazi, erreklamazio egilea itxaron zerrendan geratu zelako eta ez zelako jakinarazpena jasotzera joan.
- ET13-018: Norberaren historia klinikoa atzitzeko eskubidea baliatzea. Onartu egin da formalki, eskabidea legez ezarritako epetik kanpo erantzun Zutelako, ez Zutelako egiaztatu aurretik jakinarazi zutela.
- ET13-019: Ezerezteko eskubidea baliatzea EAEko administrazio orokorreko sail baten aurrean. Ixteko eginbidea, ez dutelako aurkeztu babes eskea ebazteko funtsezko dokumentazioa, nahiz eta behin eta berriz agindu aurkezteko.
- ET13-020: Ezerezteko eskubidea baliatzea aldizkari ofizial batean argitaratutako datuak direla-eta, EAEko administrazio orokorraren lurralde ordezkaritza baten aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET13-021: Ezerezteko eskubidea baliatzea aldizkari ofizial batean argitaratutako datuak direla-eta, EAEko administrazio orokorraren lurralde ordezkaritza baten aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET14-001: Link bat kentzeko eskabidea. Espedientea itxi egin da eta artxibatu, ez delako egiaztatu lehendabizi fitxategiaren arduradunari eskatu zaionik datuak ezerezteko.
- ET14-002: Datuak atzitzeko eskubidea baliatzea foru erakunde baten aurrean. Ez da onartu. Atzipen eskubidea eta 30/1992 Legeko eskubidea nahastu ditu.
- ET14-004: Ezerezteko eskubidea baliatzea EAEko administrazio orokorreko sail baten aurrean. Onetsi egin da.
- ET14-005: Datuak ezerezteko eskubidea baliatzea erakunde pribatu baten aurrean. AEPDra bidali da bere eskumenekoa delako.
- ET14-006: Ezerezteko eskubidea baliatzea udal baten aurrean. Onetsia, arrazoi formalak tarteko, ez zelako legez ezarritako epearen barruan gauzatu.
- ET14-007: Datuak ezerezteko eskubidea baliatzea udalaren aurrean. Onetsi egin da.
- ET14-008: Ezerezteko eskubidea baliatzea EAEko administrazio orokorraren aurrean. Ezetsia, ez delako egiaztatu lehendabizi fitxategiaren arduradunari eskatu zaionik datuak ezerezteko.
- ET14-009: Historia klinikoa atzitzeko eskubidea baliatzea. Onetsia, eskubide horrek ez duelako zer ikusirik 30/1992 Legean ezarritakoarekin eta bestelako lege berezietan ezarritakoarekin (DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 27.3 art.).



4.2. SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal administrazio edo erakunde publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako arau-hausteak dira.

2014an 43 salaketa berri jaso ditugu DBEBn, eta 38 ebatzi dira guztira. Beraz, salaketa kopurua aurreko urtean aurkeztutakoen antzekoa da.

4.2.1. Artxibatutako salaketa aipagarrienak

- DN13-028: Udal batek zehapen espediente bateko datuak argitaratu dituelako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Jakinarazpenak aldizkari ofizialen bidez egitea legezkoa da, 30/1992 Legearen arabera, eta, beraz, DBLOren arabera ere bai (ez da adostasunik behar).
- DN13-030: Udal bateko udaltzaingoak taxi-gidari baten telefonoa laga du, zerbitzu bat eman dezan. Datu horiek DBLOren ezarpen eremutik kanpo daude, lanbideko telefonoa delako, borondatez emana (DBLO garatzen duen Erregelamenduaren 2.2 artikulua).
- DN13-031: Datuak udal iragarki-oholean argitaratzea. Artxibatu egin da, udalak egin duena izan delako beste udal batek egindako jakinarazpen bat ediktuen oholean argitaratzea, 30/1992 Legearen 59.5 artikulua betez.
- DN13-042: Salatu dute unibertsitate bateko gobernu kontseiluaren saio bateko aktan datu pertsonalak jaso izana artxibatu egin da, salaketan aipatzen den informazioak, hau da, gobernu kontseiluaren saioan eman zen informazioak ez duelako datu pertsonalak babesteko eskubidea urratzen; izan ere, informatzeko eskubidea baliatzea baino ez da egin, hau da, kide anitzeko organo bateko kide batek gainontzeko kideei kontseiluko kide batek burutzen duen jardueraren berri eman die, ordezkatzan dituen interes orokorren ordezkaritza.
- DN14-001: Foru aldundi bateko gizarte ongizateak senide bati paziente baten osasun datuak lagatzea, pazientearen adostasunik gabe. Pazienteak ez du gaitasunik, eta, horregatik eman dizkiote datuak senideari, Pazientearen Autonomiari buruzko azaroaren 14ko 41/2002 Legearen 5. artikuluekin eta martxoaren 13ko 38/2012 Euskal Dekretuekin bat.
- DN14-003: Salatu den ekintza da, zerbitzu harremana behin hasita gero, salatzailea bitarteko irakasle moduan aritzeko egokia ote zen erabakitzeko ireki zuten jardute-espediente bateko datuak atzitu zituztela. Artxibatu egin dugu, lan harremanei buruzko araudia aztertu eta salatutako datu lagatzea sustatu duen prozedura ikusita, hala egin daitekeela dioelako arau horrek, hau da, unibertsitateko irakasleen ordezkioak egiteko izangaien zerrendak gestionatzeko arautegiak.

Erregelamenduak jasota dauka halako datuak lagatzeko aukera, eta, beraz, esan behar da datuak laga egin behar direla bitarteko irakasleak egokiak ote



diren zehazteko, eta, azken finean, kontratu harremanari eusteko; eta, hasiera batean ukituak ezin du horren aurka jo. Gainera, beharrezko datuak baino ez zituzten eman, hau da, batzordeak langilearen interesen alde egiteko egoki jotzen zituen alegazioak egiteko behar zituen datuak baino ez ziren eman espedientean.

- DN14-007: Salatu dute ordezkari sindikal batek funtzionarioak hautatzeko prozesu bateko izangaiei idazki bat laga izana. Salaketa artxibatu egin dugu zabaldu diren datuak salatzaileak langileen ordezkari zereginei lotutako datuak izateaz gain, lan inguruneak eta langileen ordezkaritzaaren baitakoak direlako. Beraz, hirugarren batzuk salatu diren datu pertsonalak atzitu izana (kontuan izanda hirugarren horiek erakunde bereko funtzionarioak direla) ez dago datuak babesteko araudiaren aurka.
- DN14-008: Osasun datuak lagatzea datuen titularren adostasunik gabe, produktu medikuen salmenta enpresa bati. Salaturako gertakariak ez dira frogatu.
- DN14-010: Sindikatu atal batek udaleko udaltzaingoaren sindikatu iragarki-oholean afiliatu baten datu pertsonalak argitaratu ditu. AEPDra bidali da bere eskumenekoa delako.
- DN14-012: Salatu dute langile baten datuak laga eta tratatu dituztela langilearen adostasunik gabe. Ikusi da datuak jendearen eskurako iturrietatik hartu dituztela, eta, beraz, adostasuna ez da beharrezkoa, DBLoren 11.2.b) artikulua xedatutakoaren arabera.
- DN14-015: Bideozaintzako kamerak jartzea jabetza pribatu batean, bide publikoa grabatzen. AEPDra bidali da bere eskumenekoa delako.
- DN14-017: Segurtasuneko enpresa pribatu batzuen aurkako salaketa, bideozaintzako kamerak erabiltzeagatik. AEPDra bidali da bere eskumenekoa delako.
- DN14-018: Udal batek enpresa pribatu bati datuak lagatzea trafikoko isunak kobratzeko. Artxibatu egin da, DBLoren 12. artikulua arabera tratamendu enkargu bat zegoelako.
- DN14-024: Bideozaintzako kamerak daude establezimendu batean, informazio txartelik gabe. AEPDra bidali da bere eskumenekoa delako.
- DN14-025: Salatu dute hautaketa prozesu batean onartutako eta baztertutako behin-behineko hautagaiei buruzko zerrenda bat argitaratu dutela Interneten iragazkirik gabe. Artxibatu egin da, deialdiaren seigarren oinarriak aurreikusten zuelako behin-behineko zerrenda udalaren iragarki-oholean eta web orrian argitaratuko zela.

Gainera, bosgarren oinarriak xedatzen duenez, hautaketa prozesuan parte hartuz gero, hautagaiek onartu egiten dute eskabidean jasotako datu pertsonalak eta hautaketa prozesuko behin-behineko eta behin betiko emaitzak argitaratzea iragarki-oholetan, web orrietan eta bestelako hedabideetan.



Gainera, udalak dio salatzaileak ez zituela deialdiaren oinarriak errekurritu, eta espedientean aurkeztu du salatzaileak izenpetutako eskabidea, eta eskabideak honakoa dio: "Sinatzaileak baimena ematen du bere datu pertsonalak tratatu eta argitaratu ditzaten".

- DN14-031: Salatu dute, salaketa judizial batez gain, prozesuko alderdi demandatzaileak salatzaileari ireki zioten diziiplina espediente bateko dokumentu bat ere aurkeztu zuela. Era berean, salatzaileak adierazi zuen egun horietan berak artean ez zuela espediente horren kopiarik.

Artxibatu egin dugu, bildu dugun informazioa ez delako nahikoa ustezko errugabetasuna suntsitzeko, ezin izan delako egiaztatu (eta zantzurik ere ez da aurkitu) demandan aurkeztutako dokumentua udalak eman duenik. Beraz, salatzailearen adierazpenak baliogabeak dira, susmo hutsak direlako eta ezin direlako frogatu.

- DN14-033: Salatu dute udal batek gidari bati jakinarazi ziola bere aurkako diziiplina espediente bat irekiko zutela. Ustez trafiko arau-hauste bat egiteagatik salatu zuten gidaria. 170/1994 Legearen 30. artikulua dio prozedura bat hasten bada salaketa baten ondorioz, prozedura hasteko erabakia jakinarazi egin behar zaiola salaketaren sinatzaileari. Artxibatu egin dugu salatu duten arau-haustearen elementu objektiboak ez duelako ondoriorik izan, hau da, ez delako datuen konfidentzialtasuna urratu; eta bidalitako espedientearen arabera, salatutako datu lagatzea ez zen benetan gertatu, prozedura hasteko erabakia bere jatorrira bueltatu zutelako.

4.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakunde publikoei irekitzen zaizkien prozedurak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutelako zantzurik egonez gero. Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 24. artikulua arautzen ditu, eta artxibatzen direlako bukatzen dira edo, hala badagokio, arau-haustea deklaratu.

2014an 16 arau-hauste prozedura berri hasi eta 19 ebatzi ditugu. Ebatzitakoen artean 3 artxibatu egin ditugu, eta arau-hauste oso larri 1, 9 arau-hauste larri eta 6 arau-hauste arin deklaratu ditugu.

Aurten gehien deklaratu dugun arau-haustea sekretu betebeharra urratzea izan da (DBLOren 10. artikulua). Askotan gertatu den beste arau-hauste bat izan da datuen kalitatearen printzipioa urratzea (DBLOren 4. artikulua). Informazioa emateko betebeharra ez betetzeagatik ere arau-hauste bat jarri dugu (DBLOren 5. artikulua).

- PI12-014 (DN11-014): Datuak lagatzea hirugarren bati adostasunik gabe. Artxibatu egin dugu. Preskribatu egin du, arau-haustearen preskripzio epea igaro eta gero aurkeztu zutelako salaketa.
- PI13-008 (DN12-031): Bideozaintza kamerak jartzea hiriko autobusen kanpoko aldean eta autobus geltokietako informazio paneletan trafikoa zaintzeko. Udalak urratu egin du DBLOren 4.1 artikulua aldarrikatzen duen datuen



kalitatearen printzipioa, sistema horrek pertsona identifikagarrien irudiak hartzen dituelako, eta irudi horiek ez dira beharrezkoak trafikoa kontrolatzeko. Otsailaren 25eko 2/2004 Euskal Legearen 22.3 c) artikulua arabera, arau-haustea larria da.

- PI13-009 (DN13-024 y RR14-002): Iragarki-ohol publiko elektronikoan (Internet bidez edonork ikus dezakeena) eta sindikatu iragarki-oholean (intraneta) komunikatu bat argitaratzea, salatzaileari irekitako diziiplina espediente baten berri ematen. AEPDk lehendik aztertuta dauka kasu honetan bezala, datu pertsonalak babesteko eskubidearen eta sindikatu askatasunerako eskubidearen artean egon daitekeen balizko talka, eta adierazi du "salatu dituzten sindikatuek egin dutenari buruz, esan behar dela sindikatu askatasunerako eskubidea nagusitzen zaiola datuak babesteko eskubideari; beraz, ezin da esan DBLO urratu denik". Artxibatu egin dugu, espedientearen instrukzioak ez duelako ikusi argitalpeneko datuak "aldu, galdu, tratatu edo atzitu direnik baimenik gabe"; hain zuzen ere, hirugarrenek salatzailearen datu pertsonalak atzitzeko eskubidea badute, ezinezkoa delako segurtasun neurriak urratzea eta bide gabe bere datuak atzitzea.

- PI13-010 (DN13-006): Salatzailean ezgaitasunari buruzko datuak web orri batean argitaratzea. Sekretu gorde beharra urratu da. DBLOren 10. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua xedatzen duenez, arau-haustea larria da.

- PI13-011 (DN13-037): Salatu dute El Correo egunkarian salatzaileari diziiplina espediente bat ireki ziotela argitaratu zutela.

Ebatzi dugu udalak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 10. artikulua urratu zuela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.3 f) artikulua larritzat jotzen duen arau-haustea deklaratu dugu.

- PI14-001 (DN13-035): Salatzailearen izena sartu Googlen eta pertsona horren datu pertsonalak ikusi dira eskuragarri foru arau batean. Ebatzi dugu aldundiak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 10. artikulua urratu duela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.3 f) artikulua larritzat jotzen duen arau-haustea deklaratu dugu.

- PI14-002 (DN13-043): Hainbat lanposturen deialdietako zerrendak argitaratzea web orrian. Ordezkapenak egiteko zerrendetako hautagaien zerrendak izen-abizenekin eta NANarekin ingurune irekian argitaratuz gero, urratu egiten da DBLOren 10. artikuluko sekretu gorde beharra; eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-haustea larria da.

- PI14-003 (DN13-031): Salatzaileak jadanik ordainduta daukan trafiko arau-haustea bati buruzko jakinarazpena argitaratu dute udal bateko iragarki-oholean. DBLOren 10. artikuluko sekretu gorde beharra urratu da, eta otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 f) artikulua arau-haustea larria da.



- PI14-004 (DN13-046): Salatzailearen datuak atzitu dituzte epai batetik, bere adostasunik gabe, udaltzaingoari atxikitako edozein funtzionario sar daitekeen gune komunean jarritako informazio panel batean ipini zutelako. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 10. artikulua urratu dute. Beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.3 c) artikulua larritzat jotzen duen arau-haustea deklaratu dugu.
- PI14-005 (DN13-019): Lurralde ordezkaritza batek laneko gatazka bati buruzko espediente bateko dokumentazioa laga du. Datuen kalitateari buruzko printzipioa urratu da. DBLOren 4. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larria da.
- PI14-006 (DN13-045): Udal bateko segurtasun arloak ez du sartu datu bilketako informazio klausula trafikoko zehazpen espedientean. Informazio printzipioa urratu dute. DBLOren 5. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 d) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.
- PI14-007 (DN13-029): Euskal federazio batek federatuen datu pertsonalak argitaratu ditu federazioaren web orrian. Sekretu gorde beharra urratu da. DBLOren 10. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.
- PI14-008 (DN13-036): Udal batek bide publikoa okupatzeko eskabide bati buruzko datuak argitaratu ditu adostasunik gabe. Sekretu gorde beharra urratu da. DBLOren 10. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.
- PI14-009 (DN14-006): Salatzailearen datuak atzitu dituzte epai batetik, bere adostasunik gabe, epaia sindikatuei bidali zaielako. Ebatzi dugu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1992 Lege Organikoaren 10. artikulua urratu duela; beraz, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Eusko Legebiltzarraren Legearen 22.2.e) artikulua arintzat jotzen duen arau-haustea deklaratu dugu.
- PI14-010 (DN14-004): Foru aldundi bateko sail batek premiamenduzko probidentzia baten jakinarazpen bat bidali dio salatzaileari, baina beste helbide batera, eta gero aldizkari ofizialen argitaratu du, hori egiteko lege babesik gabe. Sekretu gorde beharra urratu da. DBLOren 10. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 f) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larria da.
- PI14-011 (DN14-002): Partikular batek karta bat erabili eta bidali du administrazio batzar batera bere adostasunik gabe. Sekretu gorde beharra urratu da. DBLOren 10. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina da.



- PI14-012 (DN13-034): Historia klinikoa erabiltzea bidegabe. Datuen kalitateari buruzko printzipioa urratu da. DBLOren 4. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larria da.
- PI14-013 (DN14-016): Afiliatuen datuak lagatzea adostasunik gabe. Sekretu gorde beharra urratu da. DBLOren 10. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.4 h) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste oso larria da.

4.4. ZEHAPEN PROZEDURAK

Fitxategien arduradunen kontura tratamenduak egiten dituzten tratamendu-eragileei irekitzen zaizkien prozedurak izan ohi dira, azken horiek datu pertsonalak babesteko araudia urratzen dutenean administrazio publikoek eman dieten enkarguak gauzatzean.

2014an zehazpen prozedura bakarra izapidetu dugu udal baten kontura tratamendu-eragile lanetan ari zen sozietate anonimo baten aurka.

- PS13-001 (DN12-031): Bideozaintza sistema bat instalatu dute trafikoa kontrolatzeko, baina agindutakotik harantzago joanez. Ezarritako bideozaintza sistema agindutakoa baino harantzago doa, eta lortu nahi den helbururako gehiegizko datu tratamendua egin du. DBLOren 4.1. artikulua urratu da. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.3 c) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste larria da.



5. EUSKADIKO DATUAK BABESTEKO ERREGISTROA

5.1. INFORMAZIOAREN ITURBURUA

Datu guzti hauek Fitxategien Erregistroaren datu-basearen azterketan dute jatorria. Erregistroan DBEBn deklaraturako inskripzio guztiak daude, Erregistroa sortu zenetik gaur arte. Erregistroa 2004an sortu zen. Denborari buruzko kalkulu guztietarako hartu den erreferentziako data izan da fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan "inskribatze, aldatze eta/edo ezabatze" data.

"Agentziaren zifrak" deritzon eranskinean daude jasota zehatz-mehatz Datuak Babesteko Erregistroan 2014an egindako deklarazio guztiak. Horretarako, hainbat taula jarri dira honako datuekin: Erregistroaren bilakaera historikoaren datuak, fitxategien mugimenduei buruzko datuak, erakunde deklaratzaileri buruzkoak eta abarrei buruzkoak, beste aldagai hauekin gurutzatuta: lurraldeari, administrazio mailari eta segurtasun mailari buruzko datuak.

Azpirarratzekoa da 2014ko abenduaren 1az geroztik, fitxategiak jakinarazteko kudeaketa-sistema berria dagoela martxan; eta, horren ondorioz, hainbat datu eta sailkapen kategoriak berrikusi egin dira. Beraz, horrek beharbada ondorioak izan ditu urteko serieei buruzko zenbait datutan. Halakorik gertatu bada, adierazi egin dugu.



Era berean, 2011z geroztik www.avpd.eus web orrira egin dituzten bisiten bilakaera aurkezten dugu. Horretarako, "Google Analytics" tresnaren bidez bildutako trafikoko datuak erabili ditugu.

5.2. INSKRIPZIO ESKAERAK

2014an 948 mugimendu egon dira guztira Fitxategien Erregistroan (sortzeko, aldatzeko edo ezabatze inskripzioak). Mugimendu horien %44 fitxategi berriak sortu direlako egin diren inskripzioak izan dira (415 fitxategi berri). Aldaketak, ordea, 284 izan dira (% 30) eta 249 ezabatze egon dira (% 26).

Horren arabera, saldo garbia da (inskrizioak ken ezabatzeak) 186 fitxategi berri gehitu direla Datuak Babesteko Erregistroan. Beraz, 2014a bukatzean 8.682 fitxategi zeuden inskribatuta (ikus "Agentziaren Zifrak" eranskineko C.1 koadroa).

Eskuineko grafikoan inskripzioen urtez urteko bilakaera ikus daiteke. 2004ra arte egindako inskripzioak Datuak Babesteko Espainiako Agentzian egindakoak dira. 2004az geroztik egindako inskripzioak, ordea, Datuak Babesteko






Euskal Bulegoak egin ditu. "Urteko saldoa" epigrafeak DBEBren Erregistroari egindako ekarpenen saldo garbia islatzen du.


2014an mugimendu gehien egin dituzten erakundeak dira Eusko Jaurlaritza (eta bere menpeko erakundeak) eta tokiko administrazioak (udalak eta horiei atxikitako edo menpeko erakundeak). Jaurlaritzak 438 (% 47) mugimendu egin ditu eta 411 (% 43) tokiko administrazioek (ikusi C.4 koadroa).

Sailkapen kategoriak berritu direnez, kategoria berri bat sartu da: "Tokiko erakunde txikiak".



Deklarazioak denboran zehar aztertuta, ikusten da batez bestekoa baino deklarazio gehiago egin direla maiatzean, ekainean, uztailan eta irailean: 100 baino gehiago. Urtarrilean eta abuztuan kontrakoa gertatu zen, deklarazio gutxi egin zirelako (ikusi C.3 koadroa).


Hilean batez beste 79 eskabide izapidetu dira.





5.3. ERAKUNDE DEKLARATZAILEAK

Fitxategien jakinarazpenen kudeaketa-sistema berria abian jarri izanak ekarri du "Administrazio mota" eta "Izaera juridikoa" sailkapen kategoriak berrikusi beharra (ikusi C.6 eta C.7 koadroak). Era berean, "Fitxategien arduradunak" sailkapeneko identifikazio zaharkitu batzuk zuzendu ditugu¹.




DBEBren Datuak Babesteko Erregistroan 2014ko bukaeran jasota dauden fitxategien arduradunak 1.197 organismotakoak dira.

Horien izaera juridikoari erreparatzen badiogu, gehienak (1.084, % 90) "Administrazio organoak" dira, % 5 "Zuzenbide pribatuko erakundeak" dira (56) eta % 4 "Korporazio publikoak". Bateragarritasuna historikoa tarteko, 9 fitxategi arduradun "erakunde" pribatutzat jo dira sailkapenean.

Fitxategi bakoitzaren deklarazioan zehatz agertzen da jasota zein den fitxategiaren arduraduna (zuzendaritza orokorra adibidez), baina egokiagoa da horiek multzokatzea, erakunde deklaratzailer nagusia kontuan hartuta, hau da, barruko egitura organiko zehatza alde batera utzita. Beraz, erakundeak sailkatzeko, IFZ hartu da kontuan, desberdina dutelako, Eusko Jaurlaritzaren kasuan izan ezik, kasu horretan sail bakoitza erakunde deklaratzailer nagusitza jo delako.

454² erakunde deklaratzailer nagusi daude (ikusi C.8 koadroa). 2014ko datuekin alderatuta, 5 erakunde deklaratzailer nagusi gehiago daude. Erakunde deklaratzailer nagusi horietatik 11 Arabakoak dira eta 9 Bizkaikoak eta 2 Gipuzkoakoak.



Toki administrazioa baino ez badugu aztertzen (ikusi C.9 koadroa), 326 Erakunde Nagusi daude. Kopuru hori udalen kopurua baino handiagoa da (251).

Eta hori gertatu da udalerri batzuetan erakunde autonomiadunak eta zuzenbide publikoko beste erakunde batzuk daudelako.

¹ Aurreko urteei buruzko datuak birkalkulatu egin dira atzera begira (2014-2013 urteko aldakuntza). 2013ko oinarizko datua (C.6 koadroan dago) ez dator bat aurreko urteko 2013ko memorian aurkeztutakoarekin; eta hori zuzenketen ondorioa da.


² Zuzenketen ondorioz, 2013ko oinarizko datua ez dator bat aurreko urteko 2013ko memorian aurkeztutakoarekin.



2014a bukatzean Euskadiko udal guztiek zituzten erregularizatuta fitxategiak Datuak Babesteko Erregistroan.

5.4. 2014AN INSKRIBATUTAKO FITXATEGI AKTIBOAK

2014an 8.682 fitxategi aktibo daude Euskadiko Datuak Babesteko Erregistroan. Hurrengo grafikoan ikus daiteke bakoitzaren “antzinakotasuna” edo fitxategi horien banaketa denboran zehar, hau da, fitxategi bakoitza zein urtetan deklaratu zen ikus daiteke grafikoan.



5.5. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN BANAKETA, ERAKUNDEEN ARABERA

Inskribatuta dauden 8.682 fitxategietatik gehienak tokiko administrazioenak dira: guztira 6.593 fitxategi. 2014an zehar ere udalak izan dira, balio absolutuen arabera, mugimendu gehien ekarri dituztenak, 135 fitxategi gehiagoko saldo garbiarekin. Horrek esan nahi du aurreko urtearekin alderatuta, % 2,1 igo dela kopurua (ikusi C.10 koadroa).

Aipatzekoa da erakunde autonomiadunek deklaraturako fitxategi kopuruak izan duen igoera (% 29,2); 48 ziren eta orain 64 dira inskribaturako fitxategiak (ikusi xehetasuna C.16 koadroan).

Gainontzeko administrazioetan, Eusko Jaurlaritzan izan ezik, fitxategi kopuruaren batez besteko igoera antzekoa da (% 6 eta % 8 bitartekoa).

Eusko Jaurlaritzari eta bere menpeko organoei dagokienez, % 1,5 gutxitu da inskribaturako fitxategien kopurua, 2014an zehar 138 fitxategi ezabatu direlako eta 121 berri inskribatu direlako; hain zuzen ere, Segurtasun Sailak (lehen Herrizaingo Saila) edo Ogasun eta Finantza Sailak (lehen Ekonomia eta Ogasuna) edo Osakidetzak hainbat berrikusketa egin dituztelako (ikusi xehetasuna C.12 koadroan).




5.6. INSKRIBATUTAKO FITXATEGIEN SEGURTASUN MAILAK

Jakin nahi bada zein den zenbait organismok datu babesari eskaintzen dioten dedikazioa, kontuan hartu beharreko adierazle bat da inskribatutako zenbat fitxategiak duten esleituta segurtasun maila (ikusi C.19 koadroa).

2014aren bukaeran 303 fitxategi zeuden segurtasun maila deklaratu gabe. Era horretako fitxategien kopurua % 8,2 gutxitu da 2013ko kopuruarekin alderatuta (27 fitxategi gutxiago). 303 fitxategi horietatik 294 udaletako fitxategiak dira, eta gainontzeko 9ak foru aldundietako organismoeetakoak.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke zein den inskribatuta dauden fitxategien segurtasun maila eta noiz inskribatu zen lehen aldiz fitxategia.



Ikusten da segurtasun mailarik ez duten fitxategiak 1994 eta 1997 urteetan sortu ziren fitxategien multzo batekoak direla, eta sortu zirenetik ez dute aldaketarik izan.

5.7. BULEGOAREN WWW.AVPD.EUS. WEB ORRIAREN ERABILERAREN ESTATISTIKA

2013an DBEBren web orriaren erabilera neurtzeko modua aldatu zen, eta aldaketa metodologiko bat egin zen. 2005etik 2012ra arte DBEBren web orriaren inguruko jardura erregistratzeko, www.euskadi.eus erakunde atariko zerbitzariak bildutako datu trafikoa aztertzen zen.


2011ko urtariletik aurrera ari gara erabiltzen web metriketan gehien erabiltzen den mekanismo hau: "Google Analytics". Bi urtetan (2011 eta 2012) neurketa metodo biak erabili genituen aldi berean, eta ikusi genuen oso antzeko emaitzak ematen zituztela denboran zehar gertatutako bilakaerari eta joerari dagokionez, baina Google



Analytics-en emaitzak zorrotzagoak zirenez, harrez geroztik metodo hori erabili ohi dugu.


Hori guzti hori kontuan hartuta, web orriaren jardueraren inguruan ondoko bi grafiko hauek aurkezten ditugu.

Lehenengo grafikoan ikusten da zenbat bisita izan zituen web orriak hilean, eta erabiltzaileek web gunera heltzeko zenbat banakako saio egin zituzten adierazten du. Azken hiru urteetako datuak daude.



Ikus daiteke batez beste 4.000 bisita dituela hilean DBEBren web orriak, eta kopurua jaitسي egiten dela udan. 2012ko urrian igoera nabarmen bat antzematen da, eta horren arrazoia da sare sozialei buruzko bideo batzuk argitaratu zirela.

Bigarren grafikoak erakusten du zenbat orri ikusi zituzten hilean, eta adierazten du web guneko orriak zenbat aldiz aurkeztu diren edo deskargatu diren. Bata bestearen gainean jarritako grafiko baten bidez islatu dugu informazio hori. Grafikoan oso argi ikus daiteke hilez hileko joera, eta urtez urte izandako bilakaerak alderatu daitezke horrela.





6. DATU BABESARI BURUZKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOAK

6.1. AZTERKETA KUALITATIBOA, DATU BABESAREN ETA GARDENTASUNAREN GAINEAN HERRITARREK DUTEN PERTZEPZIOARI BURUZ

Azterketa 2014ko laugarren hiruhilekoan egin zen, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan.

Datu babesari buruzko pertzepzio soziala zer-nolakoa zen jakiteko lehenengo azterketa kualitatiboa 2007an egin zen. Ordutik hona 7 urte igaro dira, eta orain jakin nahi dugu ea zein izan den harrezkeroztik gizarte diskurtsoaren bilakaera, aldaketa garrantzitsuenak zehazteko, eta ikusteko nola ari diren baldintzatzen Internet eta sare sozialak pribatutasunarekin eta datu babesarekin lotutako edozein gauza.

Bide batez, ikertu dugu ea herritarrek zer jarrera duten administrazio gardentasunari dagokionez eta horrek pribatutasunean eta datu babesean dituen ondorioak.

Azterketa egiteko metodologia kuantitatiboa erabili dugu, eztabaida taldeen edo focus group teknika erabilita.

Azterketaren emaitzak www.avpd.eus web orrian daude ikusgai, baina hemen zerrendatuta daude emaitza aipagarrienak:

Gizarte diskurtsoa datu babesaren aurrean

- Herritarrek gero eta diskurtso landuagoa eta aberatsagoa dute pribatutasunaz eta datu babesaz, nahiz eta oraindik ez den oso egituratua eta Interneti oso lotuta ez egon.
- Kontzeptu ezaguna da eta gertukoa, eta norbere informazio pertsonalena kanpoan ez agertzeko eta babestuta eduki ahal izateko eskubidetzat jotzen da.
- Herritarrek agerian utzi dute arduratuta daudela, baina uste dute arriskuak gaur eguneko testuinguru sozialean nahitaez onartu beharrekoak direla.
- Alde praktikotik begiratuta, pribatutasuna eta datu babesa kontzeptu kontrajarritzat jotzen dituzte:
 - Babes gabezia sentsazioa dute, baina, arduragabekeriaz aritzen dira.
 - Datuak emateko premia soziala dute, baina, eguneroko gestioetarako trabak baino ez daudela sumatzen dute.
 - Datu babesaren balorazio egokia egiten dute off lineako munduan, baina, aldi berean datu babesa legearen kontrolpetik kanpo ikusten dute Interneten.
- Esan daiteke, une jakin batzuetan (jende ospetsuari irudiak lapurtzea, kontu korronteetan karguak egitea...) aldi baterako alerta egoera pizten dela, baina, halakoetan, prebentzio neurri batzuk baino ez dira hartzen.



- Duela urte gutxi herritarren gutxiengo batek baino ez zeukan Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren berri; egun, ordea, ezaguna da gizartean.
 - Baina, hala ere, Legea oraindik orain ez da ezaguna jendearentzat.
 - AZETA eskubideak ezezagunak dira oro har.
 - Gehienek ez dakite bereziki babestutako datuak ere badaudela.
- Datuak erabiltzen dituzten eragileei buruz zera agertzen dute:
 - Konfiantza handia administrazio publikoekiko, interes orokorrarekin lotzen dituztelako, eta protokolo eta kontrol handiagoak dituztela uste dutelako.
 - Mesfidantza handia enpresa pribatuekiko, interes ekonomikoekin eta merkatuko legeen arabera joerarekin lotzen dituztelako.

Gizarte diskurtsoa administrazio gardentasunaren aurrean

- Gizarteak uste du herritarrek ahalduzko bide bat dela, herritarrek nolabait kontrola dezaten administrazioaren funtzionamendua, eta, batez ere, diru publikoaren kudeaketa.
- Hala ere, herritarrek jarrera kritikoa agertzen dute gardentasunaren kontzeptuaren aurrean, uste dutelako ez dela benetako borondate politikoa, irudiari begirako estrategia politikoa baino.
- Gehienek uste dute komeni dela administrazio publikoei buruzko informazioa gardena izatea herritarrentzat.
- Gizartearen zatirik handienak ez du uste herritarren datuak modu aktiboan publiko egin behar direnik. Baten batek eskabide bat egiten badu, uste dute interes legitimoa izan behar duela.
- Gutxiengo bat, herritarren datuei dagokienez, erabateko gardentasunaren alde agertzen da, eta modu aktiboan nahiz pasiboan egin behar dela uste du, batez ere aurrekontu publikoei eta delituei buruzko datuak badaude tartean.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zeregina

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eginkizunez, badirudi eskatzen dutela Datuak Babesteko Euskal Bulegoa izatea pribatutasunaren eta datu babesaren esparruko erreferentea, eta lagundu dezala herritarren babes gabezia sentsazioa leuntzen.

Antzematen badute ere, gorabeherak egon daitezkeela pertsonen pribatutasunaren babesaren eta abian jarriko diren administrazio gardentasunerako jardunbideen artean, uste dute komeni dela gatazkak konpon ditzakeen organo bat egotea, baina ez organo berririk sortzea.



6.2. DATU BABESARI BURUZKO HIRUGARREN AZTERKETA KUANTITATIBOA: HERRITARREK DATU BABESAZ DUTEN PERTZEPZIOA

Azterketa Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan egin da. Informazio bilketa banan-banan eta telefono deien bidez egin da, galdetegi egituratu eta itxi bat erabili da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko populazio osoa ordezkatzen duen lagin adierazkorrari galdetu zaio.

Azterlanaren xedea da jakitea zein jarrera eta iritzi duten EAEko herritarrek datu pertsonalen babesaren arloan. Zehatzago esanda, beste gai batzuen artean, honakoei buruzko galderak egin ditugu: datu pertsonalen babesari buruzkoak, tartean dauden eragileak, datu pertsonalak eta teknologia berriak, datu pertsonalen lagapenak eta sare sozialak, legearen eta DBEBren gaineko ezagutza, eta, azkenik gure eskubideen gaineko ezagutza.

Azterketaren emaitzak www.avpd.eus web orrian daude ikusgai, baina hemen zerrendatuta daude emaitza aipagarrienak:

- Azken urte hauetan handitu egin da datu pertsonalak babesteari buruzko kezka edo ardura. 2008an euskal populazioaren % 37 kezkatuta edo oso kezkatuta zegoen; egun, ordea, % 41.
- Herritar gehienek uste du kreditu txartelarekin ordaintzea nahikoa segurua dela (% 68), eta kutxazain automatikoetan operazioak egitea ere bai (% 58). Segurtasun sentazioa gutxitu egiten da telefono bidezko banku eragiketak egitean (% 23) eta erosketak egiteko orduan txartelaren zenbakia telefonoz ematean (% 11).
- Internet bidez egin daitezkeen gestioekiko konfiantza handitu egin da, ordea, aurreko urteetan agertzen zutenarekin alderatuta: % 40k uste du oso segurua edo nahikoa segurua dela errenta aitortpena Internetetik egitea, % 32k uste du bankuko eragiketak egitea ere segurua dela; eta % 22k uste du segurua dela bankuko txartelaren zenbakia ematea Interneten erosketak egiteko. 2012an % 40k, % 23k eta % 15ek uste zuten hori hurrenez hurren.
- Esan behar da herritarrek oso kezkatuta daudela datu judizialak eta zerga arlokoak emateko kontuaz.
- Populazioaren % 57k segurtasuna pribatutasunaren aurretik jartzen du, eta % 27k kontrakoa uste du.
- % 55ek uste du erakunde publikoek herritarrei buruzko informazio gehiegi dutela, eta % 62k gauza bera uste du enpresa pribatuei buruz.
- Erakunde publikoetan konfiantza handia agertzen dute, eta konfiantza handiena Osakidetzan, Gizarte Segurantzaren eta Eusko Jaurlaritzan dute. Gainera, % 74k dio konfiantza handiagoa duela enpresa publikoan pribatuan baino.
- Gero eta gehiago erabiltzen dira orain telefono mugikorretarako segurtasun tresnak: % 86k telefonoa pizteko PINa du, % 45ek telefonoa aktibatzekeo pasahitza du, % 43k segurtasun kopia du eta , % 35ek antibirusa.



- Populazioaren % 69k Whatsapp erabiltzen du, baina, erabiltzaileen % 58 ez da asko fidatzen datu pertsonalak babesteari dagokionez behintzat.
- Gehienek (% 88) uste dute herritar anonimoek ahazteko eskubidea eduki behar dutela. Baina, % 47k baino ez dute gauza bera pentsatzen kargu publikoetan dauden pertsonen buruz, eta % 42k dio horiek ez dutela halako eskubiderik eduki behar.
- Sare sozialei buruz % 73k uste du sareek ez dutela behar bezala azaltzen datu pertsonalak nola erabiliko dituzten. Gainera, zaila da norberaren datu pertsonalen zabalkundea murriztea (2012an % 21ek uste zuen hori eta egun % 41ek).
- Sare sozialetan praktika arriskutsuak direla eta: % 79k norberaren irudiak partekatzen ditu; % 61ek senide eta lagunenak; % 48k behin edo behin esan izan du non dagoen; % 42k nora doan oporretara eta noiz, eta % 42k non zegoen.
- % 48k dio badakiela badagoela legeren bat datuak babesteko, eta horien artean gero eta gehiago dira inoiz entzun dutenak aipatzen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legea.



7. PRIBATUTASUNAREN BALIOAREN ETA AGENTZIAREN JARDUEREN ZABALKUNDEA

7.1. DATU BABESAREN EUROPAKO EGUNA (2014KO URTARRILAREN 28A)

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere egun hori ospatu du, eta Hezkuntza Komunitateak Pribatutasunaz eta IKTei buruz duen pertzepzioari buruzko Azterketa Kualitatiboa argitaratu zuen ospakizunerako. Txosten kualitatiboa da, Kualitate Lan Taldeak egin du, ikasleen, guraso elkarteetan eta irakasleen artean egindako ikerketa batean oinarrituta.

Europako Kontseiluak, Europako Batzordeak eta Europako Batasuna osatzen duten herrialdeetako datu babesaren arloko agintaritzak guztiek sustatzen dute Datu Babesaren Europako Eguna, herritarren artean datuen babesa sustatzeko. 2006ko urtarrilaren 28az geroztik ospatzen da, datu pertsonalen tratamendu automatizatuaren aurrean pertsonak babesteko 108 Hitzarmena izenpetu zenetik.

7.2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAN KOMUNIKABIDEETAN ETA INTERNETEN

7.2.1. Prentsa idatzia

Data	Izenburua	Komunikabidea
2014/01/17	Udalak gailuak aldatu beharko ditu ala ez erabili	El País
2014/01/18	Datuak Babesteko Agentziak zehapena jarri dio Donostiari bideozaintza "basatiagatik"	El País
2014/01/19	Editoriala: gurpil gaineko espioitza Donostian Noticias de Gipuzkoa	Noticias de Gipuzkoa
2014/01/19	Donostiako autobus erreien bideozaintzak aurrez aurre jarri ditu Bildu eta Elorza	libreprensa.com
2014/01/19	Donostiako autobus erreien bideozaintzak aurrez aurre jarri ditu Bildu eta Elorza	Noticias de Gipuzkoa
2014/01/23	"Donostiako autobusetatik behar zena baino gehiago grabatu zen, eta irudiak kontrolik gabe erabili ziren"	Noticias de Gipuzkoa
2014/01/23	Udalak errekurritu egingo du autobusetako bideozaintzagatik jarri dioten zehapena	Diario Vasco
2014/01/23	Zer uste duzu autobusetako bideo zaintzari buruz? [Gaiari buruzko iritzia emateko]	Diario Vasco
2014/01/24	Albizuk dio beste autobus-flota batzuetan ere badabiltzala bideokamerak	Noticias de Gipuzkoa



Data	Izenburua	Komunikabidea
2014/01/24	Datuak Babesteko Agentziak komenigarria ikusten du gazteei IKTen erabileraren gaineko aholkuak ematea	Inversión & finanzas.com
2014/01/26	"Gurasoak eta hezitzaileak harrituta daude ikusita nola erabiltzen dituzten adingabekoei teknologia berriak"	Eldiario.es
2014/01/27	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ohartarazi du ez garela jabetzen Interneten erabileraren arriskuez	Deia
2014/01/27	Datu Babesaren Europako Eguna	Deia
2014/01/27	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ohartarazi du ez garela jabetzen Interneten erabileraren arriskuez	Noticias de Gipuzkoa
2014/01/27	Datu Babesaren Europako Eguna Deia Noticias de Bizkaia	Deia
2014/01/28	Ahazteko eskubideaz jabetzen diren eta beraien informazioa kudeatzeko gai diren herritarrak lortzea aro digitalean	Diario Vasco
2014/01/28	Ikasleek Internetdun mugikorrak dituzte 11 urtetik aurrera, baina ez dute arriskuen berri	El Correo
2014/01/28	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ohartarazi du ez garela jabetzen Interneten erabileraren arriskuez	Diario Vasco
2014/01/28	Ikasleek Internetdun mugikorrak dituzte 11 urtetik aurrera, baina ez dute sareko arriskuen berri	Diario Vasco
2014/02/23	"Etxea espioiez betetzen ari gara" Iñaki Pariente de Prada, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria	Diario Vasco
2014/02/24	Interneten pribatutasunari buruzko kontsultak % 50 igo dira	El País
2014/02/24	Erkoreka: "Botere teknologikoari mugak jarri behar zaizkio, intimitatea babesteko"	ABC
2014/02/24	Erkoreka: "Botere teknologikoari mugak jarri behar zaizkio, intimitatea babesteko"	El Mundo
2014/02/25	"Etxea espioiez betetzen ari gara", Iñaki Pariente de Prada, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria	El Correo
2014/02/27	Hainbat udal teknikaririk hartu dute parte Datuak Babesteko Euskal Bulegoak saritutako gida batean	El Correo
2014/03/03	"Etxea espioiez betetzen ari gara", Iñaki Pariente de Prada, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren	Diario Vasco



Data	Izenburua	Komunikabidea
	zuzendaria	
2014/03/07	DBUs-ek errekurritu egin du kamerak erabiltzeagatik jarri dioten multa	Noticias de Gipuzkoa
2014/05/15	"Jende andana bat hasiko da eskatzen euren datuak ezabatzeko Internetetik" [DBEBren zuzendaria]	Diario Vasco
2014/05/18	Adierazpen askatasuna eta ahazteko eskubidea aurrez aurre	Noticias de Gipuzkoa
2014/06/23	Datu pertsonalen balioa	Deia
2014/07/14	DBEBk ohartarazi du ahazteko eskubidea "behar ez bezala" erabiltzen dela ustelkeria kasuetan	El País
2014/07/14	Euskal herritarrek gero eta interes handiagoa agertzen dute Googlen ahazteko eskubidearekiko	El Mundo
2014/07/14	Googleren 'ahazteko eskubideari' buruzko epaia modu bidegabean erabil dezakete	eldiarionorte.es
2014/07/14	2013an erdira jaitsi ziren administrazio publikoen zehapenak datu babesa urratzeagatik	Diario Vasco
2014/07/14	% 50 jaitsi ziren administrazioen zehapenak datu babesa urratzeagatik	Deia
2014/07/15	Euskal administrazioek errespetatu egiten dute datu babesa Diario de Noticias de Alava	Diario de Noticias de Alava
2014/07/15	Ahazteko eskubideak garrantzi handia du Datuak Babesteko Euskal Bulegoko erreklamazioen artean	Diario Vasco
2014/07/15	Bideozaintzak, erroldak eta historia medikoak garrantzi handia dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoko erreklamazioen artean	El Correo
2014/07/15	Euskal administrazioek errespetatu egiten dute datu babesa	Deia
2014/07/15	Euskal administrazioek errespetatu egiten dute datu babesa	Diario de Noticias de Alava
2014/07/18	"Nire lehendabiziko smartphonearen gida", adingabeak eta mugikorraren erabilera	Gara
2014/07/21	Datuak Babesteko Agentziak erne egoteko esan die enpresei [elkarrizketa Iñaki Parienteri, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari]	El Mundo
2014/07/26	"Googlek espioia sartu digu poltsikoan"	Diario Vasco



Data	Izenburua	Komunikabidea
2014/07/30	"Googlek espioia sartu digu poltsikoan"	ABC
2014/09/14	Google: zergatik ez nauzu ahazten? [Iñaki Pariente de Pradari egindako elkarrizketa]	El Correo
2014/09/20	Datuak Babesteko Agentziak ebatzi du iruzurgile handien zerrenda argitaratzea ez dela legezkoa	Diario Vasco
2014/09/20	Datuak Babesteko Agentziak ebatzi du iruzurgile handien zerrenda argitaratzea ez dela legezkoa	Diario Vasco
2014/10/01	Bilbaok esan du ez dabilela "inor babestu nahian"	El diario
2014/10/01	Bilbaok esan du ez dabilela "inor babestu nahian" eta prest agertu da Fiskaltzaren aurrean deklaratzeko eta Legebiltzarrean agertzeko	Europa Press
2014/10/01	Bilbaok dio berak ez duela babestu iruzurgilerik eta pertsona ustelik	ABC
2014/10/01	Bilbaok esan du ez dabilela "inor babestu nahian" eta prest agertu da Fiskaltzaren aurrean deklaratzeko eta agertzeko...	EcoDiario.es
2014/10/01	Bilbaok iskanbila ederra sortu du iruzurgileak atenditu zituela esatean	Portada del País Vasco EL PAÍS
2014/10/13	Auzitegi Nazionalak agindu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari ikuskapen bat egiteko Osakidetzari	El Correo
2014/10/13	Generikoak Auzitegi Nazionalean	El Correo
2014/10/15	Botere judizialak eskatu du ez argitaratzeko iruzurgileen zerrenda, gehiegizko neurria delako	Diario Vasco
2014/10/31	"Big datak" gure bizitzak kontrolatzen ditu, baina nork kontrolatzen du bera?	eldiario.es
2014/11/10	Datu pertsonalak babesteko nazioarteko foroaren egoitza Mexikon egongo da	La Vanguardia
2014/12/01	Elkarrizketa Iñaki Parienteri datuen pribatutasunari buruz Osakidetzan	El Correo
2014/12/11	Auzitegi Nazionala Osakidetza ikertzen ari da errezetak aldatzeagatik, errezetak sinatzen zituen medikuari ezer galdetu gabe	El Diario .es



7.2.2. Irratia eta telebista

Data	Izenburua	Komunikabidea
2014	Iñaki Parientek, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak COPEn hartzen du parte asteartero 2014ko irailetik 2015eko uztaiera arte	Cope
2014	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak tertulia batean hartzen du parte	Onda Cero
2014/01/10	"Haurren lineako pribatutasuna"	Radio Bilbao (Cadena Ser)
2014/01/24	Gipuzkoa en la onda	Onda Cero
2014/01/26	Datuak Babesteko Europako Egunari buruzko elkarrizketa Onda Vascan	Onda Vasca
2014/01/26	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari	Radio Bilbao
2014/01/26	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari	Radio Bilbao
2014/01/27	... iskanbilaz ari gara, foto-gorrien isunez eta datuak babesteko nazioarteko egunaz hitz egiten ari gara. [Iñaki Pariente, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria]	Onda Cero
2014/01/28	Elkarrizketa Joseba Etxebarriari, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren idazkari nagusiari	Bizkaia Irratia
2014/01/28	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari	ETB1
2014/01/28	Bideoa: Datu Babesaren Nazioarteko Eguna	ETB2
2014/01/28	Bideoa: Datu babesa eta Donostiako autobusetako kamerak	ETB2 Sin ir más lejos
2014/01/28	[Elkarrizketa Iñaki Parienteri] Bideozaintza Dbus-Datu babesa	Onda Cero
2014/01/28	Datuak babesteko eguna denez, Iñaki Parienterekin, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariarekin hitz egingo dugu... Inplikatu egin behar dugu eta gu geu izan eredu	Onda Cero
2014/01/28	Gaur Datuak Babesteko Europako Eguna da, eta horri buruz hitz egin dugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria den Iñaki Parienterekin.	Onda Vasca
2014/01/28	Boulevard Magazine: Datuak Babesteko Europako Egunari buruzko elkarrizketa	Radio Euskadi (EITB)



Data	Izenburua	Komunikabidea
2014/01/28	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariari	Radio Popular de Bilbao
2014/01/28	Radio Vitoriako lineako berriak eta irratia zuzenean	Radio Vitoria
2014/01/28	Euskal haurrak 10-11 urterekin hasten dira teknologia berriak erabiltzen	Radio Vitoria El Mirador
2014/01/29	Elkarrizketa Iñaki Parienteri	RNE
2014/02/04	Elkarrizketa Iñaki Parienteri "Sin ir más lejos" saioan	ETB2 Sin ir más lejos
2014/02/06	Elkarrizketa Iñaki Pariente zuzendariari	COPE
2014/02/21	Elkarrizketa zuzendariari	Onda Cero Vitoria
2014/02/24	ETB hoy Elkarrizketa Iñaki Parienteri: Sari banaketari eta DBEBren urteurrenari buruzko berria	ETB1
2014/02/24	Sari banaketari eta DBEBren urteurrenari buruzko berria	ETB2
2014/02/24	Elkarrizketa Joseba Etxebarriari DBEBren 10. urteurrenean Eusko Legebiltzarrean	Euskadi Irratia
2014/02/24	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren 10. urteurrena	Onda Vasca
2014/02/24	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak EITB Taldea saritu du	EITB
2014/02/25	Elkarrizketa Iñaki Parienteri	Onda Cero País Vasco
2014/02/26	Elkarrizketa COPE País Vasco irrastian Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren X. urteurrenean	COPE
2014/02/27	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren 10. urteurrena	Onda Cero
2014/03/04	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendari Iñaki Parienteri eta idazkari nagusi Joseba Etxebarriari egindako elkarrizketaren iragarkia	ETB2
2014/04/29	Bideoa: Sareko segurtasuna eta Interneteko delituak	ETB2
2014/05/07	Eguneko polemika: Iruzurgileen zerrenda beltzak? [Iñaki Parienteri egindako elkarrizketaren aurkezpena. Baina, ez dago dokumentu honetan jasota] Sólo está la]	Cadena Ser
2014/05/08	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari, Gipuzkoako Iruzurgileen zerrenda argitaratzeari	Onda Vasca



Data	Izenburua	Komunikabidea
	buruz	
2014/05/08	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari, Gipuzkoako Iruzurgileen zerrenda argitaratzeari buruz	Onda Vasca
2014/05/09	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari, Gipuzkoako Biltzar Nagusiek iruzurgileen zerrenda argitaratzeko hartutako erabakiari buruz	ETB2
2014/05/16	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari, Internet egunari buruz (2014ko maiatzaren 17a)	Onda Cero Gipuzkoa
2014/05/17	Elkarrizketa Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari, Googlen ahaztua izateko eskubideari buruz	ETB2
2014/05/17	Interneten datuak babesteko urratsa eman du Europako Auzitegiak	ETB2
2014/05/27	Lana bilatzea Interneten modu seguruan: Iñaki Parientek, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak Interneten (LinkedIn, Twitter, Facebook...) enplegua modu seguruan bilatzeko hainbat modu azaldu dizkigu	ETB
2014/05/27	Elkarrizketa bat EITBn DBEBaren zuzendariari	ETB2
2014/05/27	Lana bilatzea Interneten modu seguruan EITB Bideoak: Iñaki Parientek, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariak Interneten (LinkedIn, Twitter, Facebook...) enplegua modu seguruan bilatzeko hainbat modu azaldu dizkigu	ETB2
2014/07/24	Elkarrizketa Datuak Babesteko Euskal Bulegoko Pedro Alberto González González, gauzen Interneti buruz	Onda Vasca
2014/07/25	Elkarrizketa Pablo Lakuntzari	Bizkaia Irratia
2014/08/31	EHUko Uda Ikastaroak-Big Data [Elkarrizketa DBEBren idazkari nagusiari]	Bizkaia Irratia
2014/09/09	Elkarrizketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari	COPE
2014/09/14	Elkarrizketa Iñaki Parienteri	Onda Cero
2014/09/16	DBEBren programa. DBEBren zuzendaria	COPE
2014/09/19	DBEBren programa. DBEBren zuzendaria	Onda Cero
2014/09/23	DBEBren programa. DBEBren zuzendaria	COPE
2014/09/29	Iruzur informatikoak: elkarrizketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari	Radio Euskadi



Data	Izenburua	Komunikabidea
2014/10/01	José Luis Bilbao. Delitu zantzu guztiak salatuta daude [elkarriketa]	Radio Euskadi
2014/10/03	Elkarriketa, Iñaki Parienteri, DBEBren zuzendariari iruzurgile handien zerrendari buruz, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin duen kontsulta dela-eta	ETB

7.2.3. Artikuluak eta aipamenak aldizkari akademikoetan

Izenburua	Aldizkaria	Alea
Iñaki Pariente de Prada: "Abokatua da datu informatikoen eta fisikoen arduraduna"	Abokatuok	2014/06/05
Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hamargarren urteurrena ospatu du	I+S: informatika eta osasuna	104
Segurtasuneko eta Osasuneko Datuen Babesari buruzko XI. Foroa	I+S: informatika eta osasuna	104
Internet Zuzenbidearen esparrutik kanpo egon behar den esparrua ote?	Deustu	123
Datuak babesteko agintaritzen esperientzia: kasu praktikoa	I+S: informatika eta osasuna	104

7.2.4. Blogak eta web orriak

Data	Gunea	Izenburua
2014/01/28	APEPen bloga	Espainiako Pribatutasuneko Elkartea Profesionala. Elkarriketa Iñaki Parienteri. Datuak Babesteko Europako Eguna 2014
2014/01/29	Scoop. Recursos educativos	Google.docs-en jaso du "Hezkuntza komunitateak pribatutasunaz eta IKTei buruz duen pertzepzioari buruzko azterketa kualitatiboa"
2014/01/28	Kontsumobidea	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du hezitzaileek eta familiek pribatutasunari eta IKTen erabilerari buruzko aholkularitza premia handia dutela
2014/01/16	Pribatua	Urtarrilaren 23ko agentzien jardunaldia: "Teknologia, pribatutasuna eta administrazioek eta enpresek egiten dituzten datu tratamenduak" (II)
2014-01-28	KontsumoBIDE bloga	Datuak Babesteko Euskal Bulegoak antzeman du hezitzaileek eta familiek pribatutasunari eta IKTen erabilerari buruzko aholkularitza premia handia dutela



Data	Gunea	Izenburua
2014/02/23	El blog de García Larragan y Cía	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren X. Urteurrena
2014/02/24	Eusko Legebiltzarra	Eusko Legebiltzarreko lehendakari Bakartxo Tejeriak Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariari harrera egin dio. 2014ko uztailaren 14an [argazkiak]
2014/02/25	El blog de García Larragan y Cía	Hona Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren X. Urteurrena
2014/02/25	Pribatua bloga	Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren X. urteurrena ospatzeko jardunaldia
2014/03/29	El blog de García Larragan y Cía	Hona PRIBATUAren III. Jardunaldia: "Ebidentzia elektronikoak"
2014/07/14	Eusko Legebiltzarra	Argazki galeria: DBEBren zuzendari Iñaki Parientek Eusko Legebiltzarreko lehendakari Balartxo Telleriari 2013ko Memoria ematen.
2014/07/24	Youtube	Euskal Encounter 22 - Segurtasuna eta Pribatutasuna Interneten Iñaki Parientek smartphoneak erabiltzeak dituen arriskuen berri eman zuen " Segurtasuna eta Pribatutasuna Interneten" izeneko hitzaldi batean
2014/10/31	Pribatua bloga	Pribatuaren V. Jardunaldia (I) - "Internet de las Cosas / Gauzen Interneta"
2014/11/29	El blog de García Larragan y Cía	Hona PRIBATUAren V. Jardunaldia: "Gauzen Interneta"
2014/11/19	Eusko Legebiltzarren weba	Eusko Legebiltzarra - Jarduera - Ekimenak - Batzordeak eskatuta egindako agerraldia 2013ko memoria eta Agentziari eta datu babesari buruzko beste hainbat alderdi azaltzeko
2014/12/10	Marketing positiboa	"Gauzen Interneta" V. Pribatuaren Jardunaldia
2014-12-...		Tokiko Administrazioa eta Datuen Babesari buruzko II. Jardunaldi Irekia antolatu du BiscayTIK erakundeak



8. EZAGUTZA TRUKATZEKO ETA PRESTAKUNTZAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

8.1. DATU BABESARI BURUZKO NAZIOARTEKO ZENBAIT FOROTAN PARTE HARTZEA

- ***Datuak Babesteko XII. Iberoamerikako Topaketa (2014/11/12 - 2014/11/13. Mexiko D.F.)***

Mexikoko Datuak Babesteko eta Informazio Publikoa Atzitzeko Institutu Federalak (IFAI) antolatu zuen topaketa, eta bertan honako gaiak landu zituzten besteak beste: datuen babesa Interneten, enpresa jarduera era datuen babesa eta teknologia berriak eta datuen babesa.

DBEBren zuzendariak 6. saioan hartu zuen parte. Saioan landu zen gaia honakoa izan zen: "Datu pertsonalen babesa lan harremanetan".

- ***Pribatutasunerako eta Datu Babeserako Agintaritzen Europako Konferentzia (2014/06/05. Estrasburgo)***

Zuzendariak parte hartu zuen Europako Batzordeak antolatutako ekitaldi honetan. Konferentziako azken ebazpenak berretsi egiten du datu pertsonalen arloko lege esparruak berrikusteko eta finkatzeko premia dagoela; hain zuzen ere, garapen teknologikoa gero eta handiagoa denez eta gobernuek pertsonen zaintza masiboak egiteko joera dutenez, saihestu beharreko arriskuak daudelako.

- ***Eskubidea bermatzeko tokiko erakundeak gaitzeko jarduera burutzeko jardunaldia (2014-11-12. Mexiko D.F.)***

Datuak babesteko Mexikoko tokiko erakundeei zuzenduta, DBEBren eta Datuak Babesteko eta Informazio Publikoa Atzitzeko Institutu Federalaren (IFAI) lankidetzarako hitzarmenaren esparruan egin zen. Iñaki Parientek hitzaldi bat eman zuen datuen babesa eta araudia esparru publikoan nola ezarri azalduz, eta gaurkotasuneko beste hainbat gai ere landu zituen.

8.2. HITZALDIETAN, MINTEGIETAN ETA BESTELAKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTZEA

- ***Datu babesari buruzko hitzaldia (2014-01-15. Galdakao)***

Helduen hezkuntzako ikastetxe publikoan, DBEBren zuzendariak eman zuen.



- ***Datu babesari buruzko hitzaldia (2014/02/3. Vitoria-Gasteiz)***

Zuzendariaren hitzaldia Arabako Psikologoek Elkargo Ofizialeko Zuzendaritza Batzordeari, azaltzeko nola bete behar dituzten elkargokideek DBLOren oinarriko betebeharrak.

- ***Datu babesari buruzko jardunaldia (2014/02/11. Donostia-San Sebastián)***

Zuzendariak parte hartu zuen Easoko Institutu Politekniko hezitzaileei, gurasoei eta gazteei zuzendutako jardunaldi honetan. Jardunaldiaren xedea zen Interneten, sare sozialen eta teknologia bidezko beste harreman sistema batzuk erabiltzeko azalpenak ematea.

- ***Segurtasuneko eta Osasuneko Datuen Babesari buruzko XI. Foroa (2014/02/19 - 2014/02/29. Iruñea)***

Aurtengo edizioaren gaia honakoa izan da: "Osasuna 2.0 eta mOsasuna. ***Osasunaren arloko informazioaren segurtasuna eta konfidentzialtasuna gizarte konektatuan***" Osasun asistentzia eta kudeaketarako gizarte interakzioko tresna berriek, batez ere, ingurune mugikorrek, dakartzan erronkekin eta aukerekin zer ikusia zuten gaiak landu ziren. DBEB batzorde antolatzaileko kidea denez, hasiera ekitaldian parte hartzeaz gain, honako mahai-inguru biak koordinatu zituen: "***Informazioaren konfidentzialtasuna eta segurtasuna gaixo kronikoen etxeko arretan***" eta "***Zenbait kasu praktiko: datuak babesteko agintaritzen esperientzia***".

Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarteak sortu zuen Segurtasuneko eta Osasuneko Datuen Babesari buruzko Foroa, osasunaren esparruko profesionalek, datuak babesteko agintaritzek eta esparru teknologikokoek elkartzeko gune bat izan dezaten. Foroaren xedea da osasun arreta kalitatezkoa eta eraginkorra izatea, eta aldi berean herritarren eskubideak errespetatzea.

- ***Datu babesari buruzko hitzaldia Gipuzkoako Abokatuen Elkargoan (2014/02/26. Donostia-San Sebastián)***

Zuzendariak eman zuen, eta asmoa zen elkargokideei azaltzea zein betebeharrak dituzten DBLOri dagokionez.

- ***Hitzaldia Arabako Psikologoek Elkargo Ofizialean (2014/02/27. Vitoria-Gasteiz).***

Zuzendariak eman zien elkargokideei, eta 50 lagun inguru bertaratu ziren.



- ***Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzen duen Agentzia (Unibasq) (2014/03/21)***

Saioaren xedea izan zen Unibasqeko langileei azaltzea DBLO behar bezala betetzeak dakartzan betebeharrak.

- ***Hitzaldia: "Aurrerapen teknologikoak, sare sozialak eta pertsonen bizitza pribaturako arriskuak" (2014/03/24. Leioa)***

Zuzendariak UPV-EHUko Zuzenbideko Graduak ikasleei emana.

- ***Hitzaldia Datu Babesa, Gardentasuna eta Informazioa Atzitzeko Nazioarteko Unibertsitate Masterrean (2014/03/27. Madril)***

DBEBren ibilbidea eta jarduerak azaltzeko saioa, SanPablo CEU Unibertsitatean. Madril.

- ***Pribatuaren III. Jardunaldia: "Ebidentzia elektronikoak" (2014/03/28. Donostia-San Sebastian)***

Zuzendariak eta Erregistroaren buruak hartu zuten parte, eta kontrol agintaritzen ikuspegitik begiratuta landu zuten gaia. Indar berezia jarri zuten berrikuntza teknologikoan, pribatutasunerako mehatxuan eta horrek dakartzan erronkak datuak babesteko Europako etorkizuneko erregelamenduan. Saioa Koldo Mitxelena Kulturunean egin zen.

- ***Pribatutasuna eta Segurtasun Informatikoa (2014/04/29. Donostia-San Sebastián)***

Erregistroaren buruak ***"Pribatutasuna, Segurtasuna eta Datuen Babesa"*** hitzaldia eman zuen. Jardunaldia Informatikako Fakultatean egin zen, eta Itsas-Software Libreko Taldeak antolatu zuen.

- ***Hitzaldia: "Teknologia, pribatutasuna eta datu babesa: gatazkak eta egungo egoera" (2014/04/29. Arrasate/Mondragón)***

Zuzendariak Mondragon Unibertsitateko Informatikako Graduak ikasleei emana.

- ***Hitzaldia datu babesari buruz Bizkaiko Psikologo Elkargo Ofizialean (2014/04/19. Bilbao)***

Elkargokideei zuzendutako hitzaldia izan zen, azaltzeko nola jokatu lanbidean DBLO behar bezala betetzeko.



- ***"Gauzen Interneta zure enpresan" Jardunaldia (2014/05/22. Zamudio)***

Erregistroaren buruak ***"Segurtasunaren erronkak"*** izeneko hitzaldia eman zuen, eta DBEBren zuzendariak honako mahai-inguruan hartu zuen parte: ***"IoT delakoa (Gauzen Interneta) garatzeko aukerak Euskadin"***.

Jardunaldia Zamudioko Parke Teknologikoan egin zen.

- ***Ahazteko eskubideari buruzko Googleren epairen gaineko Mintegia. Zuzendariak emana (2014/05/23. Madril)***

Zuzendariak parte hartu zuen CEU San Pablo Unibertsitateak antolatutako mintegi honetan.

- ***SMS Forum-en XV. Nazioarteko Jardunaldia: Gizarte digitala, konfiantza eta ziberarrisku artean" (2014/05/28. Madril)***

Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioko Telekomunikazioetarako eta Informazioaren Gizarterako Estatuko Idazkaritzak (Madril) antolatu zuen jardunaldia. DBEBren zuzendariak Datuak Babesteko Kataluniako Agintaritzaren eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren ordezkariekin batera hartu zuen parte honako mahai-inguruan: "Pribatutasuna tresna egokia konfiantza digitalerako". Zuzendariak aipamen berezia egin zion etorkizuneko Europako erregelamenduari. Era berean, Google eta AEPDren epiaiaz eta ahazteko eskubideaz ere aritu zen.

- ***Euskal Administrazio Publikoari buruzko Lege Aurreproiektuaren aurkezpen publikoa egiteko jardunaldia (2014/06/04. Bilbao)***

Zuzendariak eta Lege-aholkularitza osoak hartu zuten parte. Bilboko Itsasadarra Itsas Museoan egin zen.

- ***Osasuna eta Justizia Jardunaldia (2014/06/16- 2014/06/17. Bilbao)***

Osakidetza antolatutako jardunaldia. UPV-EHUko Mitxelena entzunaretoan egin zen. DBEBren zuzendariak pazientearen segurtasunari buruzko saioan hartu zuen parte, eta ***honako hitzaldia eman zuen: "Osasunaren esparruan, pazienteen datu pertsonalak babesteko, tresna informatikoak erabiltzeak dakartzan inplikazioak"***.

- ***Datu Pertsonalak Babestea eta Segurtasuna IKTen arloan (2014ko ekainaren 17a, 18a, 24a, 25a eta 30a. Bilbao)***

DBEBren zuzendariak parte hartu zuen Deustuko Unibertsitateak antolatutako jardunaldi honetan, eta Zuzenbidearen arloko profesionalei eta/edo gaian interesa duten bestelako interesdunei eskaintzen dien etengabeko prestakuntzako programaren barruan antolatu zuen.



- ***"Nire enpresaren segurtasunerako gakoak" JARDUNALDIA (2014/06/24. Donostia-San Sebastián)***

Jardunaldi hau Gipuzkoako Parke Teknologikoan egin zuten, eta zuzendariak honako hitzaldia eman zuen: ***"Enpresaren segurtasuna eta datuen babesa: elkarren aliatuak"***.

- ***Hitzaldia honako gaiari buruz: Datu babesa hezkuntzaren esparruan (2014/07/07. Donostia-San Sebastián)***

Easo Institutu Politeknikoko irakasleei eta ikasleei zuzenduta.

- ***Euskal Encounter saioa 2014 (2014ko uztailaren 24tik 27a. Barakaldo)***

Euskal Encounter informatika zaleentzat eta profesionalentzat Internet&Euskadi elkarteak antolatzen duen bilgunea da, bertan ezagutzak trukatzeko eta informatikaren inguruko jarduerak burutzeko. Zuzendarik parte hartu zuen eta hitzaldi hau eman zuen: ***"Segurtasuna eta pribatutasuna Interneten"***.

- ***Gobernuaren eta Parlamentuaren arteko harremanei buruzko I ikaskuntza jardunaldiak: kontrol parlamentarioa, gardentasuna eta pribatutasuna (2014ko urriaren 13a eta 14a. Bilbao)***

IVAPek antolatu zuen Bilboko Euskalduna Jauregian. Zuzendariak parte hartu zuen eta honako saioaren moderatzaile aritu zen: ***"Pribatutasuna eta kontrol parlamentarioa"***. Lege-aholkularitzako kideak ere han egon ziren.

- ***"Ahazteko eskubidea Mario Costeja eta Googleren arteko auziren gaineko epaiaren ostean" jardunaldia (2014/10/16. Madril)***

Zuzendariak ahazteko eskubideari buruzko hitzaldi bat eman zuen jardunaldian. Jardunaldia ANDEMA-Marka Defendatzeko Elkarre Nazionalak antolatu zuen (Merkataritza Ganberetako Kontseilu Nagusia). Madril.

- ***"Datu babesa eta genero indarkeria" jardunaldia (2014/10/17. Madril)***

Jardunaldi hau Madrileko Erkidegoko administrazio publikoan lan egiten duten pertsonen bereziki zuzendutako prestakuntza ziklo baten barruko saioa bat izan zen. Saioaren xedea zen genero indarkeriaren testuinguruan datu tratamenduak nolakoak diren aztertzea, eta horretarako, goi-mailako segurtasun neurriak eskatzen dira. Agentziaren zuzendariak honako hitzaldiarekin hartu zuen parte: ***"Nola egokitu datu pertsonalen tratamendua genero indarkeriaren esparruan". Genero indarkeriaren biktimak diren emakumeen datu pertsonalak tratatu aurreko jarduerak: adostasun informatua"***.



- ***Hitzaldia Gipuzkoako Aseguru Artekarien Elkargoan (2014/10/23. Donostia-San Sebastián)***

Zuzendariaren hitzaldia Gipuzkoako Aseguru Artekarien Elkargoko kideei zuzenduta, azaltzeko nola bete behar bezala DBLO aseguru artekari edo bitartekari lanean.

- ***"Datu babeseta eta osasun datuak" jardunaldia (2014/10/24. Madril)***

Jardunaldi hau aurrekoaren ziklo berekoa da. DBEBren zuzendariak honako hitzaldia eman zuen: ***"Osasunaren esparruan, pazienteen datu pertsonalak babesteko, tresna informatikoak erabiltzeak dakartzan inplikazioak"***.

- ***Mediku Deontologiako VII. Erronda: "Historia klinikoaren erabilera ona" (2014/10/28. Bilbao)***

DBEBren zuzendariak jardunaldian hartu zuen parte. Fundación de Estudios Sanitarios-Osasun Ikaskuntza Fundazioak antolatu zuen eta Bizkaiko Medikuen Elkargo Ofizialaren egoitzan egin zen. Jardunaldiaren xedea zen jardunbide medikuak berrikustea, eta edizio honetan historia klinikoaren erabilera egokia zen gaia.

- ***Jardunaldia: "Gauzen Interneta zure enpresan (2014/11/04. Donostia-San Sebastián)***

Jardunaldia hau Gipuzkoa Teknologikoa Jardunaldien baita egin zen, Miramongo Parke Teknologikoan. Donostia-San Sebastián. Zuzendariak honako hitzaldia eman zuen: ***"Pertsonen pribatutasuna, datu pertsonalen segurtasuna eta gauzen Interneta"***.

- ***III. Pribatua Lantegia (2014ko azaroaren 6a. Vitoria-Gasteiz)***

Lantegi praktikoa. Izenburua: "Informatzeko betebeharra. Adostasunaren printzipioa. Tratamenduaren arduraduna Hirugarrenei datuak lagatzea. Datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea (AZETA eskubideak)". Abokatuei zuzenduta zegoen eta helburua zen azaltzea euren lanbidean nola bete DBLO. Arabako Abokatuen Elkargo Ofizialak antolatu zuen, Pribatua Elkarrekin lankidetzan.

8.3. PRESTAKUNTZA JARDUERAK: IKASTAROK

- ***Datu babesari buruzko masterra (2014/02/21-2014/03/03. Bilbao)***

Lege-aholkularitzako teknikari batek hartu zuen parte Bizkaiko Abokatuen Elkargoak eta Deustuko Unibertsitateak antolatzen duten Abokatutzaren jarduerarako Unibertsitate Masterreko datu babeserako modulu honetan 2014ko otsailean.



- ***"Gardentasuna eta Datu Pertsonalen Babesa" lantegia (2014/03/07)***

Lantegia EUDELeK eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak antolatu zuten, eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaletako politikariei eta langileei zuzenduta zegoen. Saioak DBEBren zuzendariak eta lege-aholkularitzako teknikari batek eman zituzten.

- ***Auditoria, Segurtasuna, Gobernua eta IKTen Zuzenbideko Masterra (2014/05/17. Madril)***

Zuzendariak Madrilgo Unibertsitate Autonomoan emandako saioa masterreko programako datu babesari buruzko atalean.

- ***Udal idazkarientzako ikastaroa. "Datu babesaren" modulua (2014/05/19. Bilbao)***

"Datu babesaren arloko printzipioak, eskubideak eta betebeharrak" ikastaroa, lege-aholkularitzako teknikari batek eta Datu Pertsonalen Fitxategien Erregistroa eta Auditoria zerbitzuaren buruak eman zuten. Ikastaroa IVAPEK antolatu zuen.

- ***UPV-EHUko Udako Ikastaroa. "Datu Pertsonalen Balioa: publizitatea, big data" (2014/06/23. Donostia-San Sebastián)***

UPV-EHUK, DBEBrekin batera, datu babesari buruzko topaketa bat antolatu du UPV-EHUren udako ikastaroen barruan. Aurtengo ekitaldia datuek merkataritzaren arloan duten balioari, big datari eta horien merkataritza erabilerak eragiten dituzten arazoei buruzkoa izan da. Erregistroa eta Auditoria zerbitzuaren buruak ***"Datuen tratamendu masiboak pribatutasunean duen eragina"*** izenburua zuen mahai-ingurua moderatu zuen, eta zuzendariak beste hau: ***"Publizitatea eta cookieak"***.

- ***Datuak babesteko ikastaroa gizarte zerbitzuetarako (2014ko uztailaren 8tik 15era. Donostia-San Sebastián)***

Ikastaro teoriko-praktikoa aldundiko gizarte zerbitzuetako langileei zuzenduta.

- ***Nola babestu zuren datuak? ikastaroa (2014-10-14. Donostia-San Sebastián)***

Lege-aholkularitzako teknikari batek Gipuzkoako Foru Aldundia emandako ikastaroa.



9. BESTE ADMINISTRAZIO, AGENTZIA ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANAK ETA LANKIDETZA

9.1. DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAREN KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAN PARTE HARTZEA

DBEBren zuzendaria, AEPDren Kontseilu Aholku-emailearen kidea da, eta 2014ko uztailaren 16ko bileran hartu zuen parte.

9.2. LANKIDETZA BESTE AGENTZIA BATZUEKIN.

9.2.1. Lan taldeetan parte hartzea

- *Erregistroaren eta Teknologia Berrien taldea*

Datuak babesteko hiru agentzietako fitxategien erregistroak koordinatzen dituen lan taldeak bilera bakarra egin bi egin ditu 2014an. Lehengo bilera maiatzaren 20an izan zen eta bigarrena azaroaren 25ean, biak bideokonferentzia bidez.

Bilera biak izan dira ohikoak, eta helburua izan da erregistro autonomikoetako erregistroetatik AEPDren Erregistro Nagusira egindako bidalketen jarraipena egitea.

9.3. HARREMANAK EUSKO LEGEBILTZARRAREKIN

- *Lehendakaria (2014/07/14. Vitoria-Gasteiz)*

DBEBren zuzendari Iñaki Parienteren agerraldia Eusko Legebiltzarreko lehendakari Bakartxo Telleriaren aurrean, DBEBren 2103ko Memoria aurkezteko.

- *Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordea (2014/11/19. Vitoria-Gasteiz).*

DBEBren urteko memoria aurkeztu zen Eusko Legebiltzarreko Erakunde, Segurtasun eta Justizia Batzordean azaroaren 19an.

9.4. ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

- *Arabako Batzar Nagusiak (2014/09/18. Vitoria-Gasteiz)*

Zuzendariaren agerraldia Arabako Batzar Nagusietan, gardentasunari buruzko foru arauaren proposamenerako legegintza ponentzian informatzeko.



9.5. LANKIDETZA BESTE ENTITATE ETA ADMINISTRAZIO BATZUEKIN

- *Zuzendariaren bilera Jesuiten ikastetxeko zuzendariekin eta ikasketa buruarekin (2014/11/26. Donostia-San Sebastián)*
- *Araba Enpresa Digitala*
- *Genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arreta hobetzeko II. Hitzarmenaren erakunde arteko talde teknikoa*
- *Andaluziako Osasun Zerbitzua. Arrisku Digitalak Kudeatzeko Unitatea*

9.6. ALIANTZA ESTRATEGIKOAK

- *Hitzarmena Eusko Jaurlaritzarekin: Addenda 2014. Eusko Jaurlaritza - Lehendakaritza*
- *Hitzarmena EJI Erekin: Addenda 2014*
- *Euskal Herriko Telekomunikazio Ingeniarien Elkargo Ofiziala eta Telekomunikazio Ingeniarien Elkarte*

Lankidetzarako esparru hitzarmena, datu pertsonalen babesaren arloan eta telekomunikazioen segurtasunaren esparruan zabalkundea, sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzeko.

- *Mexikoko Datuak Babesteko eta Informazio Publikoa Atzitzeko Institutu Federalarekin (IFAI)*

Lankidetzarako esparru-hitzarmena, Mexikoko Estatu Batzuetako Datuak Babesteko eta Informazio Publikoa Atzitzeko Institutu Federalarekin (IFAI), bien artean burutzeko lankidetzak, prestakuntza eta gaikuntza esparruko jarduerak, eta berariazko programak eta proiektuak garatzeko.

- *Internet&Euskadi elkarte*

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eta Internet&Euskadi elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena, datu pertsonalak babesteko oinarritzeko eskubidea sustatzeko IKTeekin zer ikusia duten hainbat alderditan.



10. BARNE KUDEAKETA

10.1. BIKAINTRASUNA ETA BERRIKUNTZA

10.1.1. Konpromisoa bikaintasunarekin eta DBEBren kudeaketaren etengabeko hobekuntza

2012-2015 Plan Estrategikoa gauzatzeko lanen jarraipenak erakusten digu helburu estrategikoak betetzeari dagokionez egindako aurrerapena eta erronka berriei heltzeko gaitasuna.

Bikaintasunarekin dugun konpromisoari esker, lortu dugu, besteak beste, lanaren antolakuntzari, ikaskuntzari, lidergoari edo lan giroari buruzko esparruen gainean dugun pertzepzioa hobetzea. Dimentsio horien berri izatea lagungarria da hobetzeko esparruak partekatzea eta horiei heltzea.

10.1.2. Lankidetza Innobasque eta Euskalitekin berrikuntza erdiesteko

DBEBk 2008az geroztik hartzen du parte Berrikuntzaren Euskal Agentzian (Innobasque).

Agentziak Euskalitekin ere lan egiten du prozesuak eta laneko metodoak hobetzeko.


10.1.3. DBEBko pertsonen ikaskuntza, DBEBren kudeaketa hobetzeko.

- DBEBko kideen prestakuntza jardueretako parte hartzea eta informazioaren eta ezagutzaren kudeaketa bi eratara ulertu behar da; batzuetan ikastun (ikasleak) izaten direlako eta beste batzuetan esparruko adituak izaten direlako (irakasleak).
- Bulegoko pertsonen kalitatearen arloan beharrezko ezagutzak izan behar dituztelako ustea berretsiz, 2014an etengabea izan da prestakuntza jarduera berriekiko ikaskuntza aktiboa.



10.2. ORGANIGRAMA ETA PERTSONALAREN PLANTILLA

10.2.1. Organigrama





Hona hemen 2014ko abenduaren 31n plantillaren egoera sexua kontuan hartuta:

Lanpostu kategoria	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Zuzendaria	1	0	1
Goi-mailako teknikariak	5	5	10
Administrariak	1	2	4
Guztira	7	7	14

10.2.2. Egitura organikoa eta lanpostu zerrenda

▪ *Lanpostu zerrenda*

2013ko ekainaren 17ko Ebazpenak onartu zuen lanpostu zerrenda egokitua eta eguneratua, gaur arte arte izapidetutako aldaketa guztiak jasoz, indarrean dauden prozeduren arabera.

10.2.3. Lanpostuak betetzea: deialdi publikoak

▪ *Izendapen askea 2014*

Goi-kargudunaren idazkariaren plaza hutsik zegoenez, izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko izapidetutako ekin zitzaion 2014ko azaroaren 19ko Ebazpenaren bidez. Prozedura 2015eko urtarrilaren 12ko Ebazpenaren bidez ebatzi zen, eta goi-kargudunaren idazkari plaza (001 kodea, 1 dotazioa) bete gabe geratu dela adierazten da, ez zelako aurkeztu lehenengo oinarrian eskatutako baldintzak betetzen dituen hautagairik. (otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 2.1 artikulua aipatzen dituen administrazio edo organoetako karrerako funtzionarioak).

▪ *Zerbitzu eginkizunak 2014*

Letratu instruktore-ikuskatzailearen lanpostu bat hutsik zegoenez, zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia egin zen 2014ko ekainaren 9ko Ebazpenaren bidez.

Deialdiaren Ebaluazio Batzordeak proposatuta, deialdia hutsik geratu zela deklaratu zuen 2014ko uztailaren 29ko Ebazpenak.

▪ *Lehiaketa 2014*

2014ko otsailaren 25eko Ebazpenaren bidez ebatzi zen hainbat lanpostu lekualdatze bidez betetzeko Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2013ko urriaren 2ko Ebazpenak deitutako lehiaketa.

- Itzultzaile teknikaria
- Dokumentazio eta informazio teknikaria



10.3. AURREKONTU, KONTABILITATE ETA ONDARE KUDEAKETA

10.3.1. 2014ko aurrekontua

2/2004 Legearen 13. artikulua honakoa ezartzen du: “Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurreregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera”.

10.3.2. 2013ko Aurrekontu exekuzioa

GASTUEN AURREKONTUA

Kapitulua	Kapituluen izena	Kredituak guztira	Ordaindu beharreko diru izendapenak	Egindako ordainketak	Ordaintzeke	Exekuzio egoera
1	Langileen gastuak	1.089.347,00	901.656,80	900.169,00	1487,8	% 82,77
2	Gastu arruntak eta zerbitzuak	494.803,00	447.986,17	378.180,33	69.804,84	% 90,54
6	Benetako inbertsioak	62.000,00	5.749,92	5.749,92		% 9,27
8	Finantza aktiboak	4.700,00				
	Gastuen batura guztira	1.650.850,00	1.404.392,89	1.284.099,25	71.292,64	% 85,07

Gastuaren exekuzioa dela-eta, zera aipatu beharrean gaude:

- I. Kapituluen % 82,77 exekutatu da, hainbat lanpostu huts egon direlako. Nahiz eta hautaketa publikoak izapidetu behin baino gehiagotan, oso zaila da lanpostuak betetzea.
- II. Kapituluen % 90,54 exekutatu da, eta horren arrazoia da, batez ere, administrazio egitura arruntaren funtzionamendutik eratorritako gastuen exekuzioa hobetzeko erabili dela.
- VI. Kapituluen % 9,27 exekutatu da, eta horren arrazoia da beharrezkotzat jo diren bulegoko ekipoak bakarrik erosi direlako. Aplikatibo informatiko batzuk birdiseinatu egin behar dira, eta horren ondorioz ez dira gauzatu 2014rako aurreikusitako jarduerak.
- Azkenik, VIII. Kapituluan planteatutako kreditu erreserbaren helburua da langileei maileguak lagatzea, baina azkenean ez da erabili.



SARREREN AURREKONTUA

Kapitulua	Kapituluen izena	Aurreikuspena guztira	Eskubide garbiak	Egindako sarrerak	Kobratzeke	Exekuzio egoera
3	Tasak eta bestelako sarrerak		20.000,00	20.000,00		
4	Transferentzia arruntak	1.324.150,00	1.324.150,00	1.324.150,00		% 100,00
5	Ondare sarrerak	4.000,00	4.806,31	4.806,31		% 120,16
7	Kapital transferentziak	11.700,00	11.700,00	11.700,00		% 100,00
8	Finantza aktiboak (gerakinak)	311.000,00				
	Sarrerren batura guztira	1.650.850,00	1.360.656,31	1.360.656,31		% 82,42

"Transferentzia arruntak" eta "Kapital transferentziak" ataletakoak DBEBk dituen berezko baliabide ekonomikoetan dute jatorria, eta nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura urtero ezartzen diren aurrekontu esleipenekin datoz bat.

